



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko abenduaren 9a

140. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2021eko azaroaren 5eko 126. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

LEHENENGO ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 7. artikulua a) letrako lehen paragrafoa aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

«a) Gizarte Segurantzak, edo horren ordeko entitateek, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia dela-eta subjektu pasiboari onartutako prestazioak, baita 55 urtetik gorako zergadunek ezintasun iraunkor osoa dela-eta jasotako prestazioak ere. Ezintasun iraunkor osoaren kasuan, salbuespena ez zaie aplikatuko Foru Lege honen 14.2 artikuluan ezarrita ez dauden lan-etekinak edo jarduera ekonomikoen ondoriozko lan-etekinak jasotzen dituzten zergadunei. Bateriaezintasun hori ez da aplikatuko prestazioak lehen aldiz jasotzen den zergaldian».

Zioak: Neurri honen helburua da ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliaezintasun handiaren ondorioz aitortutako prestazioek PFEZean duten errenta salbuetsien izaera ezintasun iraun-

kor osoaren ondorioz jasotako prestazioei ere aplikatzea lan bizitzaren azken urteetan dauden zergadunen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako PFEZari buruzko araudian arlo horretan ezarritakoaren antzera.

2. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 7. artikulua k) letra aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik izanen ditu ondorioak aldaketak.

«k) Urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren II. tituluaren VI. eta VII. kapituluetan eta VI. tituluaren I. kapituluaren araututa dauden familia prestazioak, bai eta administrazio publikoetako langileentzat, hala jardunekoentzat nola pasiboentzat, seme edo alaba desgaitu bakoitzarengatik ezarritako familia laguntza.

Era berean, umezurtzei dagozkien pentsio eta sarrera pasiboak eta hogeita bi urtetik beherakoak diren edo lan guztietarako ezinduak dauden biloben edo anai-arreben aldekoak, Gizarte Segurantzaren eta klase pasiboen araubide publikoetatik jasoak, eta, halaber, zurtasunarengatik jasotzen diren gainerako prestazio publikoak.

Modu berean, salbuetsiak egonen dira Gizarte Segurantzako araubide berezi aipatuaren alternatiba gisa diharduten gizarte-aurreikuspenarako mutualitateek norbere konturako langile edo autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian txertatu gabe dauden profesionalen aitorturiko prestazioak, baldin eta prestazio horiek badira aurreko bi paragrafoek aipatu den araubide berezian txertatuta dauden profesionalentzat Gizarte

Segurantzak aurreikusitakotzat jasotzen dituzten egoera berberetarako prestazioak. Hauxe izanen da salbuetsitako kopuruaren muga: Gizarte Segurantzak dagokion kontzeptuarengatik onesten duen gehieneko prestazioaren zenbatekoa. Mugaz gaindikoa lan etekin gisa ordainduko da zergan, eta, Gizarte Segurantzaren prestazioak lehen aipatutako mutualitateenekin batera gertatuz gero, lan etekina azken horietan gertatu dela ulertuko da.

Salbuetsiak egonen dira, halaber, Gizarte zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazio ekonomikoak, bai eta Gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen Foru Legean ezarritako errenta bermatua ere. Era berean, salbuetsiak egonen dira jaiotzagatik, adopzioagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak harreran hartzeagatik, zurtasunagatik, haur batez baino gehiagoz erditzeagatik edo beste horrenbeste adoptatzeagatik edo minbiziak edo beste edozein gaixotasun larrik jotako seme-alaba adingabeak zaintzeagatik emandako gainerako prestazio publikoak, bai eta jaiotza-tasa sustatze aldera eta langileen lana eta familiako bizitza ongi uztartzeko neurri osagarri gisa kasuan kasuko deialdien bidez familiaren arloan emandako laguntzak ere».

Zioak: Gehitu eta argitu egin da Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginaren II. tituluaren VI. eta VII. kapituluetan jasotako amatasun eta aitatasun prestazioak salbuetsita egonen direla 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera. Aurreko ekitaldietarako konponbidea 2020an eta 2021ean aurreko urteetako parametroetan oinarritutako kenkari berezi bat aplikatzea bada ere, ez du eragozten 2022tik aurrera prestazio horiek salbuesteko arauak ezartzea, eta neurriak ez du segurtasun faltarik sortzen arlo juridikoan. Horri esker, nafarrek EAEko eta Espainiako gainerako erkidegoetako herritarrek dituzten baldintza berberak izanen lituzkete eta gurasoek ez lukete diskriminaziorik edo tratu txarragorik jasoko Nafarroan.

Salbuespena ezartzeak oraingo kenkaria indargabetzea dakar, haren ordezkia baita.

3. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 15.2 artikuluari c) letra gehitzeko zuzenketa.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“2. Ondokoak ez dira inola ere gauzazko ordainsaritzat hartuko: (...)

c) urrutiko lana edo telelana egiteko beharrezkoak diren bitartekoak, ekipoak eta erremintak entregatzea edo erabiltzeko lagatzea, zergadun bakoitzeko urteko 2.000 euroko mugarekin, softwarea eta lotutako periferikoak barne.

Lotutako periferikotzat hartuko dira, besteak beste, monitoreak, teklatuak, saguak, bozgorailuak, inprimagailuak, webcamak, mikrofonoak, aurikularrak eta USB memoriak”.

Zioak: Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz urrutiko lana edo telelana normalizatzen ari denez, lana egiteko modu horren ondorio fiskalak arautu behar dira. Urrutiko lana edo telelana egiteko beharrezkoak diren bitartekoak, ekipoak eta erremintak entregatzea edo erabiltzeko lagatzea gauzazko ordainsaritzat ez hartzeko arrazoiak da ez litzatekeela diferentziarik egon beharko lantokian eskura jarritako bitartekoen eta urrutiko lana egiteko eskura jarritakoen artean. Horrez gainera, telelana sustatu nahi da, enpleguarentzat abantaila ukaezinak baititu, bai osasunari dagokionez –lanerako bidean eta lanetik bueltan istripuak izateko arriskua desagertzen da, lanerako joan-etorriek eragindako estresa murrizten du eta Covid-19a bezalako pandemia baten ondorioz kutsatzeko arriskua gutxitzen du–, bai lanari dagokionez –handitu egiten da errendimendua eta, ondorioz, hobetu egiten da enpleguaren lanaren ebaluazioa, ez duenez lantokira joan behar, denbora aurrezten duelako, eta hobetu egiten da kontzentrazioa–, bai lana eta familia bateratzeari dagokionez –ordutegiaren malgutasuna handiagoa da–.

Antzeko neurriak daude Europako beste herrialde batzuetan, hala nola Erresuma Batuan, Belgikan eta Holandan.

4. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 15.3 artikuluari g) letra gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik izanen ditu ondorioak aldaketak.

«g) Sozietateek beren akzio edo partaidetzak, edo Merkataritza Kodearen 42. artikuluaen ildotik taldea osatzen duen edozein sozietateren akzio edo partaidetzak, jarduneko langileei doan edo

merkatuko prezio normala baino merkeago ematea, baldin eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 4. apartatua jasotako enpresetako langileei aurretiaz emandako akzioen edo partaidetzen gaineko erosteko aukera baliatzearen ondorio bada, eta langile bakoitzari guztira emandakoaren zenbatekoa ez bada 50.000 eurotik gorakoa urtean».

Zioak: Espainiako Gobernuaren enpresa emergenteen ekosistema sustatzeko legearen proiektuaren ildotik, eta eremu berritzaileenetan talentua erakartzeko eta enpresa emergente berriak sortzeko, estimuluak ezartzen dira Nafarroa erakarria izan dadin enpresa horiek kokatzeko eta horrek dakarren talentua erakartzeko, langileen-tzako pizgarrien bidez.

5. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginiaren 17.2 b) artikulua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik izanen ditu ondorioak.

“b) Ehuneko 40, foru lege honen 14.2.a) artikulua aipatzen dituen prestazioetarako, baldin eta kapital gisa jasotzen badira eta lehen jasoalditik bi urte iragan badira”.

Zioak: Aurreikusitako aurrezkoa, epe luzerako aurrezkoa den heinean, funtsezko faktorea da ekonomia produktiboaren finantzaketa egonkorerako eta, beraz, garapen ekonomiko eta sozialerako. Gainera, ahalegin- eta lan-urteetan aurrezten dutenentzat erretiro-errentak sortzea duenez helburu nagusi, osagai sozial bikoitza du, zeina bizi-itxaropenaren gorakada dela-eta are garrantzitsuago bihurtu baita. Arrazoi horiengatik, Euskal Autonomia Erkidegoko foru-ogasunek egiten duten bezala, kapital salbuetsia % 40ra arte handitzea proposatzen da, eta horrekin aurrezteko modu hori sustatu nahi da.

6. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginiaren 18.1 artikuluar d) letra gehitzeko zuzenketa.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

«d) Behar bezala egiazaturik dagoenean, foru lege honen 62.9 artikularen c) letran aipatutako pertsonak zaintzeko familiaren etxean lan egiten duten pertsonekin formalizatutako kontratuen ondoriozko ordainsariak direla eta, subjektu pasiboak zergaldian ordaindutako kopuruak. Lan egiten duen pertsonak lan-kontratua izan behar du eta Gizarte Segurantzako dagokion araubidean afiliatuta egon behar du. Muga lanbide arteko gutxieneko soldata izanen da».

Zioak: Neurri honen xedea da, lanaren etekin garbia zehazteko, gastu kengarritzat jotzea zenbait senide zaintzeko etxean bertan lan egiteko kontratatutako pertsonen ordaindutako ordainsariak. Izan ere, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko foru legearen proiektuak jada jasotzen du kontratu horien ondorioz Gizarte Segurantzaz kotizatutako ordaindutako kopuruei aplikatu ahal zaien kenkaria % 25etik % 100era aldatzea.

Neurri honen helburua da etxean lan egiteko pertsonen kontratazioa sustatzea eta iruzur fiskala edo bestelako iruzurrak saihestea, baita ezkutuko ekonomia saihestea ere, eta, horretarako, kontratu horiei lotutako errentak azaleratu behar dira.

7. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginiaren 25,2. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“2. Aurreko apartatua xedatutakoaren arabera kalkulaturako etekin garbi positiboa % 40 murriztuko da etxebizitzarako erabiltzen diren ondasun higiezinaren errentamenduaren kasuan.

Subjektu pasiboak aitortutako etekinetan soilik aplikatuko da murrizketa».

Zioak: Helburua da etxebizitzaren errentamenduetan lortutako etekinen murrizketa berreskuratzea, baina aitortu dituzten zergadunentzat baino ez. Estatuan dagoenaren antzeko neurri bat da, eta:

- Etxebizitzak alokairuan jartzea sustatzen du, merkatuan etxebizitza gehiago jarritz.
- Alokairu-errenten moderazioa sustatzen du, eskaintza handitu eta tributazioa murrizten baitu; hala, errentariak prezio txikiagoak eskain ditzake, zerga-kostu txikiagoa baitu.
- Errentariari emandako kenkariarekin osatzen du pizgarria.

- Alokairu-errentak azalarazteko balio du, aitor-tutako errentei baino ez baitzaie aplikatzen.

8. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginiaren 31. artikulua bigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Subjektu pasiboa hil dela-eta kosturik gabe eskualdatzen badira foru lege honen 29. artikuluan aipatutako besteren kapitalak hartu eta erabiltzea adierazten duten aktiboak, kapital higgarriaren etekinik ez dagoela iritziko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa orobat aplikatuko da kostu gabeko eskualdaketa oraindik eraginkortasuna duen edozein oinordetza-tituluren bidez egiten denean. Horri dagokionez, oinordetza-titulutzat joko dira urtarrilaren 26ko 16/2004 Foru Dekretuak onetsitako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 4. artikuluan adierazitakoak.

Oraindik eraginkortasuna duten oinordetza-tituluen bidez kosturik gabe egiten diren eskualdaketatik, aurreko paragrafoan aipatutako horietan, eskuratze-balioztat hartuko da, besteren kapitalak hartu eta erabiltzea adierazten duten aktiboen eskuratzailerentzat, etorkizuneko eskualdaketei begira, dohaintza-emaileak dohaintza-hartzaileari ematen dizkion unean aktiboen duten balioa, salbu eta dohaintza-emailea hil baino lehen dohaintza-hartzaileak aktibo horiek eskualdatzen dituzenean; kasu horretan dohaintza-hartzailea dohaintza-emailearen lekuan subrogatuko da aktibo horien eskuratze-balioei eta -datei dagokienez, eta oraindik eraginkortasuna duen oinordetza-itunaren aurretik dohaintza-emaileak zituen balio eta datuei eutsiko die.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa berdin aplikatuko da aktiboak dohaintza-emailea hil aurretik itzultzen, amortizatzen, trukutzen edo bihurtzen direnean ere”.

Zioak: Xedea da fiskalitatea ez izatea oztopo bat ekonomiaren eta enpresen ikuspuntutik baliozkoak eta beharrezkoak diren eragiketak egiteko, eta eragiketa horiek atzeratzera behartuta ez egotea. Aldaketa horien bidez, herentziak egin ahal izanen lirateke bizirik, heriotzaren unera arte itxaron beharrik izan gabe; horrela, fiskalitatea Nafarroako zuzenbide zibilean eta beste lurralde

batzuetan, Gipuzkoan esate baterako, jada aurreikusita dagoenera egokituko litzateke.

Gaur egun, gerta daiteke eragiketa horiek ez egitea PFEZean eskualdatzailearentzat ekar dezaketan kostu fiskalagatik; beraz, kontua da “hildakoaren gainbalioaren” tratamendua Nafarroako Zuzenbide Zibilaren mendeko herentzien kasu guztietara zabaltzea, zuhurtasun jakin batzuekin, figura hori tresna bihur ez dadin inter vivos eskualdatzeak direla-eta agerian jartzen diren ondare-gehikuntzen ondoriozko tributazioa saihesteko.

9. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginiaren 35.1.2 artikuluari amaieran beste paragrafo bat gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina:

«Halaber, behar bezala egiaztaturik dagoenean, foru lege honen 62.9 artikulua c) letran aipatutako pertsonak zaintzeko familiarren etxean lan egiten duten pertsonekin formalizatutako kontratuen ondoriozko ordainsariak direla-eta, subjektu pasiboak zergaldian ordaindutako kopuruak kenduko dira etekin garbia zehazteko. Lan egiten duen pertsonak lan-kontratua izan behar du eta Gizarte Segurantzako dagokion araubidean afiliatuta egon behar du. Muga lanbide arteko gutxieneko soldata izanen da».

Zioak: Neurri honen xedea da, enpresa edo lanbide jardueren lanaren etekin garbia zuzeneko zenbatespen arruntaren bidez edo, emisioz, zuzeneko zenbatespen bereziaren bidez zehazteko, gastu kengarritzat jotzea zenbait senide zaintzeko etxean bertan lan egiteko kontratatutako pertsonen ordaindutako ordainsariak. Izan ere, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko foru legearen proiektuak jada jasotzen du kontratu horien ondorioz Gizarte Segurantzaren kotizatze ordaindutako kopuruei aplikatzen ahal zaien kenkaria % 25etik % 100era aldatzea.

Neurri honen helburua da etxean lan egiteko pertsonen kontratazioa sustatzea eta iruzur fiskala edo bestelako iruzurrak saihestea, eta, horretarako, kontratu horiei lotutako errentak azaleratu behar dira.

10. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 36.B) artikulua 3. apartatuaren a) letra aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina

«a) Ez dira kengarriak izanen ekarpenak eta narriaduragatiko galerak».

Zioak: Neurri honen helburua da, jarduera ekonomikoaren etekin garbia zuzeneko zenbatespen berezian zehazteko, jarduera ekonomikoari lotutako aktiboen balioaren galerarekin edo gutxitzearekin dagokion amortizazioaren ondoriozko gastua gastu kengarritzat jotzea.

11. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 36.B) artikulua 4. apartatuaren b) letra aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

«b) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak badira, etekinaren % 45».

Zioak: Neurri honen bidez, zuzeneko zenbatespen berezian jarduera ekonomikoaren etekin garbia zehazteko aurrez ikusitako gastu orokorra gehitu nahi da nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jardueretarako, energiaren eta erregaien prezioa garestitzeak sektorean izan dituen ondorio kaltegarri nabarmenak arintzeko.

12. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginako 39.4.b) artikulua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

«4.b) Zergaduna hil dela-eta kosturik gabe egiten diren eskualdaketatik, baita kostu gabeko eskualdaketa orainaldiko eraginkortasuna duen oinordetza-tituluren baten bidez egiten denean ere.

Horri dagokionez, oinordetza-tituluak dira urtarrilaren 26ko 16/2004 Foru Dekretuak onetsitako

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamenduak 4. artikuluan adierazitakoak».

Zioak: Xedea da fiskalitatea ez izatea oztopo bat ekonomiaren eta enpresen ikuspuntutik baliozkoak eta beharrezkoak diren eragiketak egiteko, eta eragiketa horiek atzeratzera behartuta ez egotea. Aldaketa horien bidez, herentziak egin ahal izanen lirateke bizirik, heriotzaren unera arte itxaron beharrik izan gabe; horrela, fiskalitatea Nafarroako zuzenbide zibilean eta beste lurralde batzuetan, Gipuzkoan esate baterako, jada aurreikusita dagoenera egokituko litzateke.

Gaur egun, gerta daiteke eragiketa horiek ez egitea PFEZean eskualdatzailearentzat ekar dezaketan kostu fiskalagatik; beraz, kontua da "hildakoaren gainbalioaren" tratamendua Nafarroako Zuzenbide Zibilaren mendeko herentzien kasu guztietara zabaltzea, zuhurtasun jakin batzuekin, figura hori tresna bihur ez dadin inter vivos eskualdatzeak direla-eta agerian jartzen diren ondare-gehikuntzen ondoriozko tributazioa saihesteko.

13. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 39.4 artikulua c) letraren amaieran beste paragrafo bat gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

«Aurreko c) letran jasotakoa gorabehera, akzioak eta partaidetzak eskualdatzen direnean, ulertuko da ondare-gehikuntza edo -murrizketarik dagoela jarduera ekonomikorako beharrezkoak ez diren aktiboen balioaren -jardueraren ondorio ez diren zorren zenbatekoa kenduta- eta entitatearen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokion zatian, eta, hala badagokio, erregela hauek aplikatuko dira partaidetzako entitateen akzioen eta partaidetzen ebaluazioan haren entitate edukitzailearen akzio eta partaidetzen balioa zehazteko. Aktibo bat jarduera ekonomiko bat garatzeko beharrezkoa den ala ez zehazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.8.Hiru artikuluan xedatutakoa aplikatuko da».

Zioak: Muga bat ezarri da PFEZean ondare-gehikuntza edo -murrizketarik ez dagoela ulertzeko, familia-enpresako partaidetzak «inter vivos» kosturik gabe eskualdatzen direnean, hala-ko partaidetzak ondarearen gaineko zergatik salbuesteari dagokionez ezarritako mugarekin bat etorrita.

Aldaketa honen xedea da PFEZaren ondorioetarako ondare-gehikuntzatat ez hartzea jarduera ekonomikoa egiteko behar diren aktiboen balioaren eta ondare garbiaren balioaren arteko proportzioan baino ez aplikatzea. Ondorioz, familia-enpresako partaidetzak eskualdatzen direnean, beharrezkoak ez diren aktiboen eta entitatearen ondare garbiaren arteko proportzioa aintzat hartuko da PFEZean ondare-gehikuntzaren edo -murrizketaren ondorioetarako.

Azkenik, aktibo bat beharrezkoa den ala ez zehazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legean ezarritako definizioa hartzen da oinarritzat. 34 zenbakiko zuzenketa dela bide, hobetu egiten da haren mugaketa, ez zenbatzeko beharrezko ez diren aktibo gisa entitateak lortutako etekin banatu gabeen zenbatekoa gainditzen ez duen eskurapen-prezioa dutenak, betiere etekin horiek enpresa edo lanbide jarduerak egiteagatik lortu badira. Muga da urte horretan eta aurreko azken 10 urteetan lortutako etekinen zenbatekoa.

Neurri honen bidez, koherentzia eman nahi zaio familia-enpresaren tributu figura ezberdinen arteko eskualdaketa, kanpoan utzita, PFEZean tratamendu onuragarria izateari dagokionez, jarduera ekonomikorako beharrezkoak diren aktiboekin bat ez datorren familia-enpresaren balio proportzionala, kalterik eragin gabe azken hamarkadan dibidenduak banatzeari uko egin dioten konpainien etekinen ondorioz metatutako kapitalari, familia-enpresen enpresa jarduerak sortutako aurrezkoa ez zigortzeko.

14. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 55.1.7 artikulua a) b') eta b) a') b') letrak aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

«b') 6.000 euro urtean. Berrogeita hamar urtez goitiko partaide edo mutualisten kasuan, zenbatekoa 8.000 eurokoa izanen da urtean.

b) Gainera, hauek aplikatuko dira muga bereki eta independente moduan:

a') Urteko 8.000 euro, enpresek mendekotasun-aseguru kolektiboek ordaindutako primetarako; hau da, aurreko 4. zenbakiaren azken paragrafoak aipagai dituenetarako.

b') 8.000 euro urtean, gizarte-aurreikuspeneko sistemetara enpresek eginiko ekarpenetarako,

baldin eta partaideei, aseguratuei edo mutualistei egotzitako ekarpenak badira. Zenbateko horretatik goiti egiten duten ekarpen egotziak kontuan hartuko dira aurreko a) letran aurreikusten den gehieneko muga bateratua aplikatzeko ondorioekin”.

Zioak: Zuzenketa honen bidez, pentsio planen fiskalitatea berreskuratu nahi da eta benetako sustapena eman nahi zaie enpleguko pentsio planei, EAEn egiten den antzera, non fiskalitate hori lagungarria izaten ari baita gizarte-aurreikuspen indibidualak eta taldekoak arrakasta izan dezaten. Pentsio-planen fiskalitatea bereziki babestu behar da, pentsioen estaldura publikoaren sistema osagarri gisa. Gizarte-aurreikuspeneko mota hori sustatu nahi bada, beharrezkoa da ekarpenaren unean plan horien aldeko apustua egitea, pizgarri fiskal egokiarekin. Ezin dugu ahaztu pizgarri hauek ez dutela eragiten planak salbuestea; haien tributazioa prestazioen unera atzeratzen dute, eta, une horretan, tributazioa progresiboa da. Inguruar hori kontuan hartu beharko litzateke pizgarri fiskal hauen kostua kalkulatzeko denean: ekarpena egiten den unean, esfortzu fiskal publikoa dago, baina, berreskuratzen denean, esfortzu hori dirukutxa publikoetara itzultzen da, tributatu ez zuena tributatzeko duenean, modu progresiboan, tarifa orokorrean, metatutako errentagarritasunarekin batera, halakorik egon bada. Bestalde, banakako planen mugak jaisteak zuzenean eragiten die autonomoek aurretzeko dituzten aukerei.

Azkenik, eta neurri horrekin lotuta, enpresa txiki eta ertainek enpleguko pentsio-planak susta ditzaten, Sozietateen gaineko Zergan kenkari bat egitea proposatzen da; izan ere, sektore horiek dira, beren ahalmenak direla eta, tresna horien erakarpen gutxien sentitzen dutenak.

15. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 55. artikulua 3. apartatua aldatzeko eta 4. eta 5. apartatuak gehitzeko eta 62.9 artikulua a) eta b) letrak indargabetzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“3. Gutxieneko pertsonalarengatik.

Oro har, gutxieneko pertsonala subjektu pasibo bakoitzeko 5.400 eurokoa izanen da urtean. Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a) 945 euro, hirurogeita bost urte edo gehiago duten subjektu pasiboentzat. Zenbateko hori 2.100 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hiru-

rogeita hamabost urte edo gehiagoko adina baldin badu.

b) 2.750 euro subjektu pasibo desgaituentzat, frogatzen badute ehuneko 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa dutela, eta ehuneko 65ekoa baino txikiagoa. Zenbateko hori 9.900 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen badu % 65eko desgaitasun-maila edo handiagoa duela

4. Gutxieneko familiarrenenatik:

a) Subjektu pasiboarekin bizi eta urtean Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (OAEAP) (*) baino errenta altuagorik –, errenta salbuetsiak kenduta– jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, zenbateko hauetako bat:

– 945 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, apartatu honen c) letran aurreikusitako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea sortzen badu.

– 2.100 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

Aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errentamuga izanen da, familia-unitate osorako, Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (OAEAP)(*) halako bi.

Ulertuko da subjektu pasiboarekin bizi direla zentro espezializatuetan bizi diren aurreko ahaideak, ekonomikoki haren menpekoak badira.

b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (OAEAP)(*) baino gehiagoko errentarik ez badu urtean jasotzen, salbuetsiak bazter utzirik:

– 1.732 euro urtean, lehenbizikoagatik.

– 1.837 euro urtean, bigarrenagatik.

– 2. – 625 euro urtean, hirugarrenagatik.

– 3.517 euro urtean, laugarrenagatik.

– 3.990 euro urtean, bosgarrenagatik.

– 4.620 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Aurreko zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, adina edozein dela ere, baldin eta eskubidea ematen badu hurrengo c) letran aurreikusitako murrizketak baliatzeko.

Horrez gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duen hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide bakoitzeko

edo adoptatu bakoitzeko, 2.310 euro urtean. Zenbateko hori 4.200 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzioetan, kasuan kasuko kenkaria aplikatuko da Erregistro Zibilean inskribatzen den zergaldian eta hurrengo bietan.

Subjektu pasiboak zergaldian dituen errentak 30.000 eurotik beherakoak direnean, salbuetsiak kenduta, aurreko paragrafoan aipatzen diren zenbatekoak 2.500 euro eta 4.500 euro izanen dira, hurrenez hurren.

Subjektu pasiboarekiko elkarbizitzaren parekotasun joko da haren ondorengo ahaideek harekiko duten menpekotasun ekonomikoa, salbu eta aplikatzekoak bada foru lege honen 59.3 artikuluan xedatutakoa.

c') Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, haien adina zein ere den, 2.420 euro urtean, aurreko letren arabera bidezkoak diren zenbateko ez gain, baldin eta haiek urtean dituzten errentak, salbuetsiak kanpo, ez badira, kasuko zergaldian, Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (OAEAP) (*) baino handiagoak, desgaituak badira eta frogatzen badute % 33 edo gehiagoko eta % 65 baino gutxiagoko desgaitasun-gradua. Zenbateko hori 8.470 eurokoa izanen da urtean, frogatutako desgaitasun-gradua % 65 edo gehiagokoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, aurreko paragrafoan aurreikusitako errenta-muga izanen da Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (OAEAP) (*) halako bi, familia unitate osorako.

Aurreko b) eta c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikatzekoak den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak. Halaber, ondorengo ahaideen parekoak izanen dira urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren 50.1 artikuluan ezarritako baldintzak bete, eta harreraren hartu zituztenekin adinez nagusi izan arte edo emantzipatu arte bizitzen jarraitzea libreki erabakitzen duten pertsonak ere. Foru dekretu horren bidez, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen garapen partzialerako Erregelamendua onetsi zen. Egoera hori gizarte gaitako eskumena duen departamentuak egiaz-tatu beharko du. Ondorengo ahaideekin parekatu-

ko dira, halaber, subjektu pasiboak ebazpen judicial bidez esleiturik zaintza eta jagoletzaren araubidean dituen pertsonak, aurreko egoerez bestelakoetan daudenak.

Baldin bi subjektu pasibok edo gehiagok badute gutxieneko familiarrengatiko kenkariak aplikatzeko eskubidea, horien zenbatekoa haien artean hainbanatuko da zati berdinetan ezarritako igoera. Ondorengo ahaideei dagokienez berdin jokatuko da zaintza partekatuaren kasuetan.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin edo ondorengoarekin, gutxieneko familiarrengatiko kenkaria gradurik hurbilenekei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (OAEAP) (*) baino gehiagoko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoak aplikatuko baitzaie.

Subjektu pasibo bakoitzaren gutxieneko pertsonala eta familiarra da apartatu honetan eta aurrekoan ezarritakoaren bat etorrita aplikatzeak diren zenbatekoen batura.

5. Artikulu honetan aipatutako murrizketak erregela hauen arabera aplikatuko dira:

1.a Lehenbizi aplikatuko dira 1. eta 2. apartatuetan ezarritakoak, bai eta hamahirugarren, hamalauugarren eta hamabosgarren xedapen gehigarrietan ezarritakoak ere.

2.a Eraitza positiboa bada, 3. eta 4. apartatuetan ezarritakoak aplikatuko da, haren mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe. Eraitza negatiboa bada, 3. eta 4. apartatuetan ezarritakoak zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia murrizteko aplikatuko dira, baina negatibo bihurtu gabe».

Zioak: Ekitate printzipioa betetzeko, pertsonak eta familiek beren ahalmen ekonomikoaren arabera tributatu beharko lukete. Zerga-justizia bermatzeko, edozein zergatan zerga-oinarria zergapeko bakoitzaren kontribuzio-ahalmenaren arabera izan behar da. Adibidez, argi dago errenta berdina duten bi pertsonak karga familiar ezberdinak badiutuzte, ezberdina izanen dutela kontribuzio-ahalmena ere.

16. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 59.1. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Likidazio oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO-OINARRIA GEHIENEZ (euroak)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA GEHIENEZ (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
		6.000	13
6.000	780	1.500	15
7.500	1.005	1.500	18
9.000	1.275	10.000	22
19.000	3.475	6.000	27
25.000	5.095	7.000	32
32.000	7.335	14.000	36
46.000	12.375	14.000	41
60.000	18.115	20.000	44
80.000	26.915	45.000	45.5
125.000	47.390	50.000	46
175.000	70.390	gainerakoa	47»

Zioak: Nafarroa posiziorik txarrean dago PFEZari dagokionez, Espainia osorako Lehiakortasun Fiskalaren Indize Autonomikoaren arabera. Taula berri honen xedea da aurreko legegintzaldiko erreforma fiskalen eta inflazio urteek eragindako higaduraren ondorioz galdutako erosteko ahalmena itzultzea familiei eta zergadunei. Izan ere, inflazio urte horien ondorioa ez zen guztiz deskontatu Nafarroan 2020ko ekitaldirako egindako azken deflazioarekin. Proposatutako zergatasekin:

- Mesede egiten zaie bereziki errenta txikienei, tarteak luzatzen baitira; zerga-tasa berriak sortu eta sartu baitira, oraingoak baino txikiagoak, gaur egun tarterik baxuenean % 13tik % 22ra pasatzen baita. Tasek gehikuntza hori beste edozein tartertan erregistratutakoa baino handiagoa da.

- Beste autonomia erkidego batzuetan dauden antzeko gehieneko tasak ezarri dira: Galizia, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Murtzia eta Euskadi. Gaur egun, Nafarroa tasa marjinal altuena duen bigarren erkidegoa da.

17. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginiaren 60. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

«Likidazio oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
-	-	6.000	19
6.000	1.140	44.000	21
50.000	10.380	150.000	23
200.000	44.880	Gainerakoa	26»

Zioak: Helburua da oraingo egoera zuzentzea, Nafarroa aurrekia gehien zigortzen duen erkidegoa baita, bai aplikatu beharreko tasetan, bai karga ezartzen zaion likidazio-oinarriaren tartetan. Egoera diferentzial negatibo hori zuzentzeko, Estatuan dauden oinarriak eta tasak aplikatzea proposatzen da.

18. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bategineko 62.2) artikulua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“2. Etxebizitzaren alokaruagatiko kenkaria:

a) Subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzen badu, zergaldian ordaindutako diru kopuruen % 15eko kenkaria aplikatu ahalko du; gehienez ere 1.500 euroko kenkaria urtean.

Hogeita hamar urte baino gutxiago dituzten edo familia ugari baten titularrak diren zergadunentzat, ordea, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria % 25ekoa izanen da, eta urtean 1.800 eurokoa gehienez ere.

Ondorio horietarako, ordaindutako kopuruetatik zergadunak etxebizitza alokatzeko jasotako dirulaguntzen zenbatekoa kenduko da, halakorik jaso den kasuetan, zerga hau arautzen duen araudia aplikatuta salbuetsita badaude.

b) Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zergadunaren adina edo familia ugariaren titulartasuna zehazteko, zerga sortzen den egunean duen egoerari erreparatuko zaio.

c) Baterako tributazioa aukeratzen bada eta kenkaria aplikatzeko eskubidea duen pertsona bat baino gehiago badago, eta batzuk 30 urtetik beherrakoak badira eta beste batzuk hortik gorakoak, aurreko a) letraren bigarren paragrafoan ezarritako ehunekoa eta muga aplikatuko dira.

d) Erabaki judizialaren bidez zergadunari familia-etxebizitzaren errenta osoa ordaintzeko betebehara ezarri bazaio, zergadunak eskubidea izanen du artikulua honetan aipatutako kenkaria baliatzeko bere autolikidazioan. Betebehar hori bi zergadunek bete behar badute, kenkaria bien artean hainbanatuko da eta bakoitzaren autolikidazioan aplikatuko da, dagokion proportzioan, aurreko a) letraren lehen paragrafoan ezarritako ehunekoarekin eta mugarekin”.

Zioak: Etxebizitzen merkatuaren egoerak eta, zehazki, alokairuen merkatuaren egoerak zaildu

egiten dute etxebizitza bat eskuratzeko aukera, eta inguruabar horrek zaildu egiten du personarentzat eta gizartearentzat funtsezkoak diren erabakiak hartzea, hala nola emantzipatzea edo familia bat osatzea. Proposamen honen bidez, alokairua erraztu nahi da etxebizitza bat eskuratzeko arazo gehien dituzten artean, bereziki gazteen artean. Horretarako, hobetu egin nahi da kenkaria, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako araudian ondorio horietarako ezarritako pizgarrien antzekoak ezarrita.

19. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bategaren 62.5. Lehen artikulua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

«Lehen. Lan-etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru kopuru hauek kendu ahal izanen dituzte:

a) 10.500 euroko lan-etekin garbiak dituzten subjektu pasiboek: 1.450 euro.

b) 10.500,01 eta 17.500 euro arteko lan-etekin garbiak dituzten subjektu pasiboek: 1.450 euro ken etekin garbi horien zenbatekoari 10.500 euro kenduta bider 0,1 eginda ateratzen den emaitza.

c) 17.500,01 eurotik gorako lan-etekin garbiak dituzten subjektu pasiboek: 700 euro».

Zioak: Proposamen honek lan-etekin ondo-riozko kenkaria hobetu nahi du, bi helburu lortzeko. Alde batetik, tratamendu fiskal egokiagoa enplegua bilatzeko eta lanerako pizgarri gehigarria izatea. Bestalde, lanetik datozen batez besteko errentak dituzten pertsonak arinduta ikus dezatela jasaten duten zerga-karga, eta gasturako errenta erabilgarri handiagoa izan dezatela, horrela ekoizpen-jarduerari lagunduz.

20. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren lehen artikuluari hamar bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

«Hamar bis. 62.13 artikulua, d) letra aldatzea eta e) letra gehitzea, halako moldez non d) letraren egungo edukia e) letrara pasako baita, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin:

“d) Baldin subjektu pasiboaren errentak, salbuetsiak barne, ez badira zergaldian 30.000 euro baino gehiagokoak, a) letran ezarritako kenkari-porzentajeak honakoak izanen dira: ehuneko 35, ibilgailu elektrikoentzat; eta ehuneko 10, ibilgailu hibrido entxufagarrientzat. Baldin subjektu pasiboa familia-unitate baten kide bada, aipatu errenta-muga ez da 60.000 euro baino gehiagokoa izanen, eta familia-unitatearen osotasunari buruzkoa izanen da».

Zioak: Ibilgailu elektriko eta hibrido entxufagarrien gaineko kenkariaren ehuneko handiagoak ezartzen dira errenta txikiagoak dituzten subjektu pasiboentzat. Helburua da errenta txikiagoak dituztenei trantsizio energetikorako bidea erraztea, eta, horretarako, gehitu egin da kenkariaren ehunekoa, kontuan hartuta kenkaria aplikatuko duenak 30.000 eurotik gorako errenta duen ala ez.

21. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bategaren 62. artikuluari 15. apartatua gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“15. 0-3 urteko haur hezkuntzako ikaste-txeetako gastuengatik kenkaria

Hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten zergadunek, artikulua honen 9. apartatuko b) letran aurreikusitako gutxieneko familiarrarengatik kenkaria aplikatzeko eskubidea badute eta beren kontura edo besteren kontura jarduera bat egiten badute eta jarduera horren ondorioz Gizarte Segurantzako edo mutualitateko araubidean alta emanda badaude, hiru urtetik beherako semea edo alaba zaintzeko gastuengatik zergaldian ordaindutako zenbatekoak kendu ahal izanen dituzte, urteko 850 euroko mugarekin.

Seme-alaba adingabeak hiru urte betetzen dituen zergaldian, artikulua honetan aurreikusitako kenkaria aplikatu ahal izanen zaie adin hori bete ondoren egindako gastuei, haur-hezkuntzako bigarren zikloa hasi aurreko hilabetera arte.

Ondorio horietarako, zaintza-gastutzat hartuko dira haurtzaindegiei, etxe lagunei eta adingabe horien aurreinskripzioak eta matrikulak baimendutako beste haur-hezkuntzako zentro batzuei

ordaindutako zenbatekoak, asistentzia, ordutegi orokor eta zabalduan, eta elikadura, baldin eta hilabete osoka gertatu badira eta gauzazko lanaren etentzat hartzen ez badira, foru lege honen 15. artikulua 2. apartatuko b) letran xedatutakoa aplikatuz. Halaber, ordaindutako kopuruetatik zergadunak etxebizitza alokatzeko jasotako dirulaguntzen zenbatekoa kenduko da, halakorik jaso den kasuetan.

Abenduaren 31n Familia Ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera familia ugariaren edo familia gurasobakarraren titular diren zergadunen kasuan, Nafarroako Foru Komunitatean guraso familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen arabera, artikulua honen lehen paragrafoan aurreikusitako muga 1.000 eurokoa izanen da.

Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute kenkaria aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Berdin jokatuko da ondorengo ahaideen zaintza partekatutaren kasuetan”.

Zioak: Etxe askotako inguruabarrak aldatu egin dira pandemiaren eta harekin batera eman den krisi ekonomikoaren ondorioz. Kasu batzuetan, diru-sarrerak murriztu zaizkie. Beste batzuetan, zailtasun handiagoak dituzte bizitza pertsonala eta lana uztartzeko. Era berean, haurtzaindegiek, etxe lagunek eta haur-hezkuntzako beste zentro batzuek oso jardura txikia izan dute. Kenkari hau pizgarri bat da bai hornitzaileei bai erabiltzaileei onurak dakartzkien zerbitzu bat ematea errazteko, eta familia eta lana bateratzeko aukera ematen du.

22. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62. artikuluar 16. apartatua gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“16. Kenkaria, kenkarirako eskubidea ematen duten hiru ondorengo ahaide edo gehiago izateagatik eta familia ugariarengatik zein familia gurasobakarrarengatik.

Abenduaren 31n Familia Ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera familia ugariaren edo familia gurasobakarraren titular diren zergadunek, Nafarroako Foru Komunitatean guraso familia gurasobakarrak egiaztat-

zeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen arabera, eskubidea izanen dute 400 euroko kenkaria aplikatzeko.

Familia Ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen arabera bereziko familia ugariaren edo bereziko familia gurasobakarraren titular diren zergadunen kasuan, Nafarroako Foru Komunitatean guraso familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen arabera, kenkaria 600 eurokoa izanen da.

Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute kenkaria aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Berdin jokatuko da ondorengo ahaideen zaintza partekatutaren kasuetan”.

Zioak: COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomikoak eta krisi horrek etxe askotako diru-sarreretan eragindako murrizketak inpaktu berezia dute familia ugarietan eta gurasobakarraren, diru-sarrerak lortzen dituztenek ardurapean dituzten pertsonen kopuruagatik lehenengo kasuan, eta familia gurasobakarraren ardura duen pertsonaren sarrerak ordeztzen edo osatzen dituen sarrerarik ez dagoelako, bigarrean. Kenkari hau onuragarria izanen litzateke etxe horientzat, baina, halaber, pizgarri gehigarri bat da jaiotza-tasa suspertzeko egoera batean zeinean, egoera ekonomikoaren ondorioz, oraindik ere gehiago beharatu baitaiteke, eta gizartea negu demografikora gerturatu.

23. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 68. quater kentzeko zuzenketa.

Zioak: 2. artikuluko zuzenketarekin koherenteak izatea.

24. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 68. sexies artikulua gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“68. sexies artikulua. Jaiotza-tasa eta hiru urteko beharoko seme-alabak dituzten gurasoen lana

sustatzeko kenkaria.

1. Hiru urtetik beherako seme-alabak dituzten emakumeek eta gizonek, beren kontura edo besteren kontura jarduera bat egiten badute eta jarduera horren ondorioz Gizarte Segurantzako edo mutualitateko araubidean alta emanda badaude, urtean gehienez ere 1.200 euro kendu ahal izanen dituzte zerga honen kuota diferentzietatik, hiru urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko.

Adopzioaren edo harreraren kasuetan, adopzio aurrekoa zein iraunkorra izan, kenkaria aplikatu ahal izanen da, adingabearen adina edozein dela ere, Erregistro Zibilean inskribatu eta hurrengo hiru urteetan.

Inskripzioa beharrezkoa ez denean, kenkaria egin ahal izanen da inskripzioa deklaratzan duen ebazpen judizial edo administratiboa eman eta hurrengo hiru urteetan.

Ama hiltzen den kasuetan, edo zaintza eta jagoletza eskusiboki aitari edo, hala badagokio, tutore bati esleitzen zaizkionean, artikulua honetan aurreikusitako baldintzak betetzen baditu, tutoreak eskubidea izanen du egiteke dagoen kenkaria egiteko.

2. Aurreko 1. apartatuan aurreikusitako kenkaria kalkulatu da apartatu horretan ezarritako baldintzak aldi berean betetzen direneko hilabete kopuruaren arabera, eta seme-alaba bakoitzerako mugatzat hartuko dira Gizarte Segurantzari eta mutualitateei guztira ordaindu beharreko kotizazioak eta kuotak, jaiotzaren edo adopzioaren ondoren zergaldi bakoitzean sortutakoak.

Muga horiek kalkulatzaren ondorioetarako, kotizazio eta kuota horien zenbateko osoak hartuko dira aintzat, legezkiekeen hobariak kontuan hartu gabe”.

Zioak: Emakumeek eta gizonek amatasuna eta aitatasuna lanbideko edo laneko bizitzarekin bateratzeko izan ohi dituzten zailtasunek ondorio negatiboak dituzte haien zailtasunak eta gizartearentzat, bai jaiotza-tasak behera egiten duelako, bai jardueraren eta enpleguaren tasak murriztagoak direlako. Errealitate hori larriagotu egin daiteke krisi ekonomikoaren eraginez. Hemen proposatutako artikuluan jasotako pizgarri fiskalei esker, amek eta aitek dituzten aukerak hobetzen dira, hizkera arruntean «negatibo» esan ohi zaien kenkarietako bat sartuta. Hala esaten zaie kuotaren zenbatekoak ez daukalako eraginik kenkaria aplikatu ahal izateko.

25. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 8. artikulua (A) 1 apartatua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik izanen ditu ondorioak aldaketak.

«A) Arau orokorrak:

1. Zergari buruzko Foru Legearen 14.1.d) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, salbuesita izanen dira lokomozio-gastuetarako eta ostalaritza-establezimenduetako mantenu- eta egonaldi-gastu arruntetarako esleipenak, artikulua honetan adierazitako baldintzak eta mugak betetzen dituztenak, bai eta urrutiko lanaren edo telelanaren kasuan lan-jardueraren garapenarekin lotutako ekipo, erreminta eta bitartekoekin lotutako gastuetarako esleipenak ere.

Urrutiko lanaren edo telelanaren kasuan, lan-jarduera garatzearekin lotutako ekipo, erreminta eta bitartekoekin lotutako gastutzat hartuko dira, besteak beste, honako hauei dagozkienak: elektrizitatea, telefonia, Interneteko konexioa, ohiko etxebizitzaren berokuntza eta langileak erositako bulego-materialak, urtean 2.000 euroko mugara bitarte”.

Zioak: Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz urrutiko lana edo telelana normalizatzen ari denez, lana egiteko modu horren ondorio fiskalak arautu behar dira. Urrutiko lanaren edo telelanaren kasuan, lan-jardueraren garapenarekin lotutako ekipo, erreminta eta bitartekoekin lotutako gastuetarako esleipenetik salbuestearen arrazoiak da ez litzatekeela diferentziarik egon behar lantokian eskura jarritako bitartekoen eta urrutiko lana egiteko eskura jarritako postuen artean. Horrez gainera, telelana sustatu nahi da, enpleguaren zailtasunak abantaila ukaezinak baititu, bai osasunari dagokionez –lanerako bidean eta lanetik bueltan istripuak izateko arriskua desagertzen da, lanerako joan-etorriek eragindako estresa murrizten du eta Covid-19a bezalako pandemia baten ondorioz kutsatzeko arriskua gutxitzen du–, bai lanari dagokionez –handitu egiten da errendimendua eta, ondorioz, hobetu egiten da enpleguaren lanaren ebaluazioa, ez duenez lantokira joan behar, denbora aurrezten duelako, eta hobetu egiten da kontzentrazioa–, bai lana eta familia bateratzeari dagokionez –ordutegiaren malgutasuna handiagoa da–.

Antzeko neurriak daude Europako beste herrialde batzuetan, hala nola Erresuma Batuan, Belgikan eta Holandan, bai eta Kanada eta Australia bezalako beste herrialde batzuetan ere.

BIGARREN ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

26. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Legearen proiektuan jasotako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen bigarren artikulua bederatzigarren apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Enplegua sustatzea bereziki garrantzitsua da ziklo ekonomikoaren oraingo fasean, eta, beraz ez dira murriztu behar lanpostuak sortzeko behar diren ahaleginak eta neurriak.

27. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 20.1 artikulua 1. zenbakia aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

«1.– Zordunen kaudimengabeziaren ondorioz kredituen balio-galtzeak ekarritako galerak kengarriak dira, zergaren sortzapearen unean honako inguruabarretakoren bat tartean bada:

a) Obligazioaren mugaegunetik hiru hilabeteko epea pasatua izatea.

b) Zorduna konkurtso egoeran izatea.

c) Zorduna edo, entitate bat baldin bada, haren administratzaile edo ordezkarietakoren bat ondusunak ostentzeagatik auziperatua izatea.

d) Obligazioak auzitegian erreklamatuak izana edo kobratu ahal izatea auzi baten edo arbitraje prozedura baten konponketaren baitan egotea.

Aurrekoa gorabehera, zordunen balizko kaudimengabeziatik eratorritako kredituen narriaduragatiko galerak kengarriak izanen dira, aurreko b) eta d) letretan aurreikusitako inguruabarrak zergaren autolikidazioa aurkezteko epea hasi aurretik gertatzen direnean”.

Zioak: Aldaketa honen bidez, sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarria zergaren subjektu pasiboan ahalmen ekonomiko errealerara hurbildu nahi da enpresa guztientzat, haien tamaina dela eta bereizketarik egin gabe, eta aplikatzeko denbora-mugarik ezarri gabe. Bi neurri sartzen dira:

– sei hilabetetik hiru hilabetera murriztu da obligazioaren mugaegunetik kreditu bat kengarritzat jotzeko zergen arloan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 20.1.1 artikulua a) letren ezarritakoaren arabera.

– b) eta d) letren aplikazioa errazten da, horiek betetzeko aukera aldi baterako aurreratuz. Gipuzkoako proiektuan aurreikusitako neurria da.

28. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 25. artikulua 12. apartatua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“12. Konkurtso-prozeduren esparruan unitate produktiboak eskualdatzen direnean, baldin eta eskualdatze horietan aktibo identifikagarrien balioa ken onartutako pasiboan balioa egitearen emaitza handiagoa bada negozio-konbinazioaren kostua baino, eskuratzailerak, zerga-ondorioetarako, batzuk eta besteak baloratu beharko ditu, eta transakzioaren kostua horien guztien artean banatu, beren arrazoizko balio erlatiboan arabera”.

Zioak: Zoritxarrez, COVID-19aren pandemiak eragindako krisi ekonomikoak konkurtso-prozedura ugari eragin ditu enpresen arloan.

Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da errege-la berezi berri bat ezartzea konkurtso-prozeduretan unitate produktiboak eskuratzeari dagokionez.

Kontabilitate-arauekin bat etorritik, konkurtso-prozedura batean unitate produktibo bat eskuratzenean, unitate produktiboarekin jasotako aktiboaren arrazoizko balioa unitate horrengatik ordaintzen duen prezioa baino handiagoa bada, kontabilitateko diru-sarrerara bat sortuko da, aktiboak arrazoizko balioan baloratu behar direlako kontabilitateko ondorioetarako.

Hori dela eta, emaitzen kontuan jasotako elementuen isilbidezko gainbalio batzuekin bat datozen «sarrera» bat aitortzen da, eta, jakina, ez

dauka loturarik erabilgarri egon daitezkeen funts monetarioekin.

Zuzenketa-araurik ez badago, orain arte gertatu den bezala, fiskalitatea galga bat izan daiteke konkurtso-prozeduretan ekoizpen-unitateak eskuratzeko, hain zuzen ere gainbalio tazitu horiei dagokien sozietateen gaineko zerga ordaindu behar izatearen ondorioz, eta zaildu egiten du indarrean dagoen konkurtso-legeriaren aitortutako xedea, hau da, lehiakidearen enpresa-jardueraren jarraitutasuna. Neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako sozietateen gaineko zergaren foru-arauetan aurreikusita dago.

29. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 37.1. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“1. Ez dira zerga-oinarrian sartuko ibilgetu materialaren eta ukiezinaren ondare elementuen eta ondasun higiezinetan egindako inbertsioen kostu bidezko eskualdatzean lortzen diren errentak edo elementu horien eskualdatzetik lortutako errentak, baldin eta eskualdatu aurretik, saltzeko mantendutako aktibo ez korrontetzat sailkatu badira, entitatearen ustiatze ekonomikoari atxikiak badaude eta, gutxienez ere, urtebetez funtzionamenduan egon badira eskualdatu aurreko hiru urteetan, betiere aipatu eskualdatzeen zenbatekoa berrinbertitzen bada lehen aipatu diren ondare elementuetan, atxikitakoetan, edozeinetan, ondare elementua eman edo eskura jarri baino urtebete lehenagotik ondoko hiru urte arteko epean.

Aurreko lerrokadan xedatua gorabehera, eskualdatze edo berrinbertsioaren xede diren ondare-elementuak turismo-automobilak eta horien atoiak, ziklomotorrak, motozikletak edo 23.4 artikuluan aipaturiko ibilgailuak izanez gero, 23.3.e) artikulua aipatzen dituenak bakarrik onartuko dira.

Finantza-errentamenduko kontratuen bidez egindako inbertsioak onartuko dira, nahiz eta, kontabilitate arauak aplikatzeagatik, inbertsio horiek ez kontatu ibilgetu gisa.

Berrinbertsioaren zenbatekoa eskualdaketa guztirakoa baino txikiagoa bada, aipatu eskualda-

ketan lortutako errentaren proportziozko zatia baino ez da sartuko zerga-oinarrian”.

Zioak: Enpresen etekinak ibilgetu materiala eta ukiezina eta higiezinetan egindako inbertsioak eskuratzeko berrinbertitzea sustatzeko, zerga-oinurak eskualdaketa horietan lortutako errenta guztiei aplikatu behar zaiela uste da, 2017ra arte bezala, eta Araban, Gipuzkoan edo Bizkaian ezarrita dagoen bezala.

30. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa: Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 42.1 artikulua 5. apartatua gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“5. 48 bis artikuluan ezarritako murrizketa”.

Zioak: Zergaren zerga-oinarriaren definizioa aldatzen da 30 zenbakiko zuzenketa jasotako kapitalizazio erreserba sartzearen ondorioz.

31. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 43. artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzeko eta 3. apartatua indargabetzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Aurreko zergaldietako likidazio-oinarri negatiboek likidazioa edo autolikidazioa izan badute, zerga-oinarri positiboa murriztu ahal izanen dute, 42.1 artikulua 1. eta 2. zenbakietan aipatutako kopuruak kendu ondoren, hala dagokionean».

Zioak: Zenbait muga sartu izan dira konpentsazioaren xede diren kopuruetan, dirua biltzeko, besterik gabe. Hala ere, Estatuarekin alderatuta, non ez baitago denbora-mugarik, edo Euskadirekin, non 30 urteko epea ezartzen baita, 15 urteko muga ezartzen da aipatutako likidazio-oinarri negatiboak aplikatzeko. Horrek eragin dezake enpresa askok beren likidazio-oinarri negatiboak behin betiko galtzea, aurreko ekitaldietan izandako galeren ondorioz, eta hori gaitasun ekonomikoaren printzipioaren aurka doa.

32. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

Bigarren artikuluan (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea) beste zenbaki bat gehitzeko zuzenketa.

«Zenbaki berria. 43.1 artikulua, lehen paragrafoa. Likidazio-oinarri negatiboen murrizketa.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, honako hau dioen tokian: "...aurreko hamabost urteetan...", honako hau esan behar du: "...aurreko zazpi urteetan..."».

Zioak: Zerga-oinarri positiboa aurreko urteetako likidazio-oinarri negatiboen bidez murrizteko aukera orain ezarritako hamabost urteetatik zazpi urtera mugatzea. Murrizketa hori gehiegizkoa dela uste dugu, eta beharrezkoa da enpresa-mozkinen gaineko zerga horren bidez bildutako diru-kopurua handitzea.

33. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

Bigarren artikuluan (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea) beste zenbaki bat gehitzeko zuzenketa.

«Zenbaki berria. 43.1 artikulua, lehen paragrafoa. Likidazio-oinarri negatiboen murrizketa. Ondorioak, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan.

"1. Aurre-aurreko zazpi urteetan amaitutako zergaldietako likidazio-oinarri negatiboek likidazioa edo autolikidazioa izan badute, zerga-oinarri positiboa murrizten ahal dute, 42.1.1.a eta 2.a artikulua aipatzen dituen murriztapenen zenbatekoa kendu eta gero, hala badagokio; honako muga hauek egonen dira:

a) Ehuneko 50, negozio zifraren zenbatekoa hogeita hamar milioi eurotik beherakoa denean.

b) Ehuneko 25, negozio zifraren zenbateko garbia hogeita hamar milioi eurokoa edo handiagoa denean"».

Zioak: Zerga-oinarri positiboa aurreko urteetako likidazio-oinarri negatiboen bidez murrizteko aukera mugatzea. Gehiegizkoa deritzogu zerga-oinarri positiboa % 70eraino murrizteari. Gainera, zuzenketa honi esker, Sozietateen gaineko Zergaren hamazazpigarren xedapen gehigarriak arautu-

tako oinarri negatiboen konpentsazioaren muga – 2018ko eta 2019ko ekitaldietarako baino ez zen onartu– berreskuratuko litzateke. Enpresa-etekin zerga-ordainketa handitu beharra dago.

34. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 48 bis artikulua gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

"1. Foru lege honen 51. artikulua 1. apartatuan ezarritako karga-tasan tributatzeko duten zergadunek eskubidea izanen dute zerga-oinarriaren funts propioen gehikuntzaren zenbatekoaren % 10 murrizteko, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Erakundearen funts propioen gehikuntzaren zenbatekoa 5 urtez mantentzea, murriztapen horri dagokion zergaldia ixten denetik zenbatzen hasita, salbu eta entitatean kontabilitate-galerak badaude.

b) Murriztapenaren zenbatekoa duen erreserba ezartzea; erreserba hori balantzean agertu behar da, banantze eta titulu egokiarekin, eta ezin izanen da erabili aurreko letran aurreikusitako epean.

Eragin horietarako, ez da ulertuko erreserba hori erabili denik honako kasu hauetan:

a) Bazkideak edo akziodunak entitateetik bereizteko duen eskubidea erabiltzen duenean.

b) Erreserba osorik edo partzialki kentzen denean, foru lege honen VIII. tituluaren VIII. kaptuluan ezarritako zerga-araubide berezia aplikatzen ahal zaien eragiketen ondorioz.

c) Entitateak erreserba hori legezko betebeharen baten ondorioz aplikatu behar duenean.

Apartatu honetan ezarritako murrizketarako eskubidea ez da inola ere izanen murrizketaren aurreko zergaldiko zerga-oinarri positiboaren % 10 baino handiagoa, 42.1 artikulua 1., 2., 3. eta 4. zenbakietan adierazitako murrizketak kendu ondoren, hala dagokionean.

Hala ere, murrizketa aplikatzeko zerga-oinarri nahikorik ez badago, murrizketa-eskubidea sortu den zergaldia itxi eta hurrengo 2 urteetan amaitzen diren zergaldietan aplikatu ahal izanen dira ordaintzeke dauden zenbatekoak, bai eta dagokion zergaldian artikulua honetan xedatutakoa

aplikatzeagatik legokiokeen murrizketa ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako mugarekin.

2. Funts propioen gehikuntza ekitaldiaren itxieran dauden funts propioen (haren emaitzak sartu gabe) eta ekitaldiaren hasieran zeuden funts propioen (aurreko ekitaldiko emaitzak sartu gabe) arteko alde positiboaren arabera izanen da.

Hala ere, gehikuntza hori zehazteko, honako hauek ez dira zergaldiaren hasierako eta amaierako funts propiotzat hartuko:

- a) Bazkideen ekarpenak.
- b) Kredituak konpentsatzearen ondoriozko kapital-gehikuntzak edo funts propioak.
- c) Funts propioen zabalkuntzak, akzio propioekin edo berregituraketakoekin egindako eragiketengatik.
- d) Lege- edo estatutu-izaerako erreserbak.
- e) Finantza-tresna konposatuaren jaulkipen bati dagozkion funts propioak.
- f) Zerga honen karga-tasa handitzearen edo murriztearen ondorioz zerga geroratuen aktiboen gertatutako aldaketei dagozkien funts propioak.

Partida horiek ere ez dira, ezta ere, kontuan hartuko galdagarria den zergaldi bakoitzean funts propioen gehikuntzari eustea erabakitzeko.

3. Artikulu honetan aurreikusitako baldintzak ez betetzeak bidegabeki murriztutako zenbatekoak erregularizatzea ekarriko du, baita dagozkien berandutze-interesak ere”.

Zioak: Beharrezkoa da azpimarratzea enpresen finantzaketa erakartzeko neutraltasuna, denbora luzez kanpo finantzaketaren alde egin duen balantza orekatuz. Helburu horretan eragina du, bereziki, kapitalizazio-erreserba berriak.

Era berean, enpresen kapitalizazioa sustatu nahi da, ondare garbia handituz eta, horrekin batera, enpresen saneamendua eta lehiakortasuna sustatuz. Enpresa-kapitalizazioko erreserba hori sortuta, kaudimen handiagorekin aurre egin nahi zaie krisi ekonomikoko egoerei, hala nola COVID-19aren osasun-egoerak eragindakoari. Nabarmendu behar da Estatuko eta Euskadiko araudietan badagoela erreserba hau.

35. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 51. artikuluen 1. eta 2. apartatuak aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Ondokoak izanen dira karga-tasa orokorrak:

- a) Ehuneko 24.
- b) Ehuneko 22, enpresa txikientzat.

Karga-tasa % 19 izanen da mikroenpresatzat hartzen diren enpresa txikientzat.

b) letra honetan arautzen diren karga-tasak aplikatzen ahalko dira, soilik, zergaldiko negozio zifraren zenbateko garbia zergaldi horretako zerga-oinarriaren % 50 bada, gutxienez.

Letra honetako karga-tasak ez zaizkie aplikatu inoiz ondare entitateetat hartzen diren entitateei.

2. Ehuneko 22ko tasa ordainduko dute hauek:

- a) Partez salbuetsiak dauden entitateak, 130. artikuluan aipatuak.

Dena dela, mikroenpresa izaera badute, 1.b) apartatuan horietarako ezarritako tasaren arabera ordainduko dute.

b) Aseguru orokorretako mutuak eta Gizarte Segurantzaren gizarte aurreikuspeneko entitateak, beren araudiak ezarritako beharkizunak betetzen badituzte.

c) Elkarrekiko berme sozietateak eta birfidantza-zamendu sozietateak, Elkarrekiko Berme Sozietateen Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 11ko 1/1994 Legean arautzen direnak eta Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatuta daudenak”.

Zioak: Nafarroako enpresek gaur egun zerga honetan tributatzen dutenaren ondorioz, egoera txarragoan daude beste erregio batzuekin eta erkidego mugakideekin alderatuta. Proposamen horren bidez, Nafarroako enpresen lehiakortasuna hobetu nahi da, hazkunde ekonomikoren eta enplegu-sorkuntzaren aldeko inbertsioa bultzatuz. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden antzeko tasak proposatzen dira; izan ere, erkidego horren ekoizpen-egitura Nafarroakoaren antzekoa da.

36. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 51. artikulua 1. apartatuari c) letra gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

«c) Jarduera ekonomikoak egiten dituzten entitate sortu berriek % 15eko tasa ordainduko dute likidazio-oinarria positiboa den lehen zergaldian eta hurrengoan, artikulua honetan ezarritakoaren arabera tasa txikiagoa ordaindu behar dutenean izan ezik.

Ondorio horietarako, ez da ulertuko jarduera ekonomikorik hasi dela kasu hauetan:

I. Jarduera ekonomikoa foru lege honen 28. artikulua arabera lotuzat jotako beste pertsona edo entitate batzuk egin dutenean aurretiaz, eta entitate sortu berriari eskualdatu diotenean, edozein titulu juridiko erabilita.

II. Entitatea sortu baino aurreko urtean jarduera ekonomikoa entitate sortu berriaren kapitalean edo funts propioetan % 50etik gorako partaidetza zuzena edo zeharkakoa duen pertsona fisiko batek egindakoa denean.

Ez dira erakunde sortu berrizat joko Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako taldeetako baten parte direnak, egoitza edozein dela ere eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra izan arren.

Apartatu honetan ezarritako % 15eko karga-tasa ez zaie aplikatuko foru lege honen 8. artikulua 2. apartatuan ezarritakoaren arabera ondare-entitatetzat jotakoei.

Entitate sortu berriei ez zaie aplikatuko foru lege honen 53. artikuluan ezarritako gutxienezko tributazioa likidazio-oinarria positiboa den lehen zergaldian eta hurrengoan».

Zioak: Nafarroako enpresek eta, bereziki, enpresa sortu berriek zerga honen ondorioz tributatzen dutenagatik, egoera oso txarrean daude Estatuko besteen aurrean. Proposamen honen bidez, Nafarroako enpresen lehiakortasuna hobetu nahi da, zehazki enpresa sortu berriena, eta, horretarako, zerga esparru hobe ezarri nahi da ekintzazailtza eta enpresen sorrera sustatzeko, inbertsioa eta enpleguen sorrera ahalbidetzeko eta hazkunde ekonomikoa indartzeko enpresa jarduera hasi eta lehenengo urteetan.

37. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluan (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea) beste zenbaki bat gehitzeko zuzenketa.

«Zenbaki berria. 51.1.a) artikulua. Karga-tasak.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasi diren zergaldietan izanen ditu ondorioak. Honako hau dioen tokian: "Ehuneko 28", honako hau esan behar du: "Ehuneko 35"».

Zioak: Enpresa handien kasuan, % 35eko karga tasa berreskuratzea. Enpresa-mozkinen gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

38. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluan (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea) beste zenbaki bat gehitzeko zuzenketa.

«Zenbaki berria. 51.3.a) artikulua, bigarren paragrafoa. Karga-tasak.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, honako hau dioen tokian: "...ehuneko 25eko tasa...", honako hau esan behar du: "...ehuneko 35eko tasa..."».

Zioak: Landa kutxei eta kreditu-kooperatibei % 35eko karga tasa ezartzea. Banka pribatuaren gainerako entitateek bezala diharduten finantza-entitateak dira.

39. ZUZENKETA**IZQUIERDA-EZKERRA****TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA**

Bigarren artikuluan (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea) beste zenbaki bat gehitzeko zuzenketa.

Zenbaki berria. 51. artikulua. 7. apartatu berria gehitzen da. Karga-tasak.

51. artikulua 7. apartatu berria gehitzen zaio, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin. Honela dio:

“7. % 75eko tasa ordainduko dute kirol-apus-tuak xede dituzten sozietateek, Jokoa Arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legean ezarritako kon-zeptuen arabera”.

Zioak. Halako enpresak jartzeko asmoei atzera eragiteko baliagarria den zerga-tasa bat ezartzea.

40. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abendua-ren 28ko 26/2016 Foru Legearen 53. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“53. artikulua

1. Zerga 51. artikulua 1. eta 2. apartatuetan ezarritako karga-tasaren arabera ordaintzen duten zergadunen kasuan, kuota efektiboa ezin izanen da izan ondoko apartatuan definitzen den gu-txieneko tributazioa baino txikiagoa.

2. Gutxieneko tributazioaren zenbatekoa zehazteko, honela jokatuko da:

1. Kuotan aplikatutako hobariak karga-tasaren artean zatituta ateratzen den adina minoratuko da likidazio-oinarria, ekitaldian aplikaturik.

2. Lortutako zenbatekoari ehuneko hauek apli-katuko zaizkio:

a) 51.1.a) artikuluko lehen paragrafoan ezarri-tako karga-tasaren arabera tributatzen duten zer-gadunen kasuan, % 15.

b) 51.1.b) artikuluko lehen paragrafoan edo 51.2 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, % 13.

c) 51.1.b) artikuluko bigarren paragrafoan eza-rritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, % 10.

3. Aurreko eragiketaren emaitzari kopuru hauek kenduko zaizkio, hala ezarrita dagoenean:

a) Ekitaldian nazioarteko zergapetze bikoitza galarazteko aplikatutako kenkariak.

b) 65. eta 65 bis artikuluetan araututako film zinematografikoetan eta ikus-entzunezkoetan egindako inbertsioen eta partaidetzen ondoriozko kenkariak.

c) 61. eta 62. artikuluetan araututako ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik edo halakoetan parte hartzeagatik

kenkarien % 50. Enpresa txikien kasuan, por-tzentaje hori % 100 izanen da.

Arestiko b) eta c) letretan ezarritakoaren ondo-riotarako, ekitaldian sortutako kenkariak eta aurreko ekitaldian aplikatu gabe gelditu direnak konputatu egingen dira. Gutxieneko tributazioaren zenbatekoa zehazteko kontuan hartzen diren ken-kariak zergaldian aplikatu beharko dira.

3. Artikulu honetan ezarritakoa ez zaie aplika-tuko 51.3 artikuluko entitateei, 51.1 artikuluan aipatzen diren zerga-tasa orokorrak aplikatzen zaizkien emaitzei dagokienez».

Zioak: Helburua da karga-tasa orokorraren ara-bera tributatzen duten zergadunentzat ezarritako gutxieneko tributazioaren ehuneko Estatuaren 2022rako Aurrekontuen Orokorretan ezarritako tasara egokitzea. Aurrekoarekin koherente izate-ko, ehunekoak berrikusi behar dira 51. artikulua-ren 1. eta 2. apartuetan jasotako gainerako zergadunentzat. Aldaketa honen bidez, Nafarroa-ko enpresen lehiakortasuna hobetu nahi da, eta neurri horrek enplegua sortzea eragingen du, bes-teak beste.

41. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluan (Sozietateen gaineko Zer-gari buruzko Foru Legea) beste zenbaki bat gehi-tzeko zuzenketa.

«Zenbaki berria. 53.2.2.º) a) artikulua. Gu-txieneko tributazioa.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasi diren zergaldietan izanen ditu ondorioak. Honako hau dioen tokian: “Ehuneko 18”, honako hau esan behar du: “Ehuneko 25”».

Zioak: Enpresa handien kasuan, % 35eko gu-txieneko tributazio tasa ezartzea. Enpresa-mozki-nen gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

42. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abendua-ren 28ko 26/2016 Foru Legearen 53.2 artikulua 3. apartatuaren b) letra aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zer-galdietan izanen ditu ondorioak.

«b) 64.A) artikuluan araututako energia berriztagarrien instalazioetan egindako inbertsioen ondoriozko kenkariak eta 65. eta 65 bis artikuluetan araututako film zinematografikoen eta ikus-entzunezkoen produkzioa parte hartzearen ondoriozko kenkariak».

Zioak: Neurri honen helburua da energia berriztagarrien instalazio batzuetan egindako inbertsioen ondoriozko kenkarien bidez gutxieneko tributazioa txikiagotu ahal izatea, beste kenkari batzuek bezala, hala nola zinemaren arloko beste kenkariak eta I+G+b arloan egindako inbertsioen ondoriozko kenkariak bezala, energia berriztagarrien arloko inbertsioak sustatzen jarraitzeko.

43. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluan (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea) beste zenbaki bat gehitzeko zuzenketa.

“Zenbaki berria. 53.2. 3. b) eta c) artikulua. Gutxieneko tributazioa. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, ezabatu egiten dira 53. artikulua 2.3 apartatuko b) eta c) letrak”.

Zioak: Eraginkor eta benetako bihurtu gutxieneko tributazioa, murrizteko aukera osagarriak kenduta (zinemako produkzioak eta ikerketaren eta garapenaren arloko gastuak). Murrizketa hori gehiegizkoa dela uste dugu, eta beharrezkoa da enpresa-mozkinen gaineko zerga horren bidez bildutako diru-kopurua handitzea.

44. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluan (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea) beste zenbaki bat gehitzeko zuzenketa.

«Zenbaki berria. 61.1. artikulua. Kenkaria ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, honako hau dioen tokian: “...ehuneko 40ko kenkaria kuota likidoan...”, honako hau esan behar du: “...ehuneko 25eko kenkaria kuota likidoan...”».

Zioak: Gehiegizkotzat jotzen dugu kenkari hori. Enpresa-mozkinen gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

45. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluan (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea) beste zenbaki bat gehitzeko zuzenketa.

“Zenbaki berria. 61.1. artikulua. Kenkaria ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, ezabatu egiten dira 61.1. artikulua bigarren, hirugarren, laugarren eta bosgarren paragrafoak.

Zioak: % 40ko orokorrari gehitu beharreko % 10eko kenkari gehigarria kendu da. Gehiegizkotzat jotzen dugu kenkari hori. Enpresa-mozkinen gaineko zerga horren bidezko bilketa handitu beharra dago.

46. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 61. artikulua 3. apartatuaren b) letra aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

«d) Kalitatea bermatzeko arauak betetzen direla egiaztatzeko ziurtagiriak lortzea, ISO 9000, informazioaren segurtasunaren ISO 27001, GMP edo antzekoak, baina arau horiek ezartzeko gastuak sartu gabe.»

Zioak: Berrikuntza kontzeptua zabaltzea, I+G+b arloko kenkaria aplikatzeko eraldaketa digitalarekin lotutako ISO 27001 informazioaren segurtasunaren ziurtagiria lortzeko gastuei. Horren ondorioz, % 15eko kenkaria aplikatuko litzateke gastu horiei.

47. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 65 ter artikulua

gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“65.ter artikulua. Telelana sustatzeari lotutako gastu eta inbertsioengatikoa kenkaria.

1. Entitateak enplegatuen telelana sustatzeko egiten dituen gastuek kuota osoan zergaldian egindako gastuen % 60ko kenkaria egiteko eskubidea emanen dute, gastuak telelana egiteko behar diren ekipoak eta terminalak erosteko edo eguneratzeko eta softwarea eta lotutako periferikoak erosteko egiten badira, edo ondasun horiek erosteko maileguak eta laguntza ekonomikoak emateko egiten badira. Gastu horiei halakoak egiteko jaso diren eta zergaldian sarrera gisa egozten ahal diren dirulaguntzen zenbatekoa kenduko zaie.

Kenkari honek aipatzen dituen gastu eta inbertsioen artean, periferikotzat hartuko dira, besteak beste, monitoreak, teklatuak, saguak, bozgorailuak, inprimagailuak, webcamak, mikrofonoak, aurikularrak eta USB memoriak.

2. Entitateak enplegatuek telelana garatu ahal izateko itzulitako gastuek kuota osoan zergaldian itzulitako gastu horien % 60ko kenkaria egiteko eskubidea emanen dute, gastuak ohiko etxebizitzako elektrizitatea, telefonoa eta Internet eta berogailua ordaintzeko badira, baita enplegatuek bulegoko materialak erosteko egindako gastuak badira. Gastu horiei itzulketak egiteko jaso diren eta zergaldian sarrera gisa egozten ahal diren dirulaguntzen zenbatekoa kenduko zaie.

Kenkari horren onuradun izan daitekeen langile bakoitzeko itzulitako gastuen urteko gehieneko zenbatekoa 2.000 euro da.

3. Kenkari hori urrutiko lanari buruzko irailaren 22ko 28/2020 Errege Lege Dekretua aplikatu behar zaien langileei aplikatuko zaie”.

Zioak: Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz urrutiko lana edo telelana normalizatzen ari denez, lana egiteko modu horren ondorio fiskalak arautu behar dira. Horrez gainera, telelana sustatu nahi da, enpleguarentzat abantaila ukaezinak baititu, bai osasunari dagokionez –lanerako bidean eta lanetik bueltan istripuak izateko arriskua desagertzen da, lanerako joan-etorriek eragindako estresa murrizten du eta Covid-19a bezalako pandemia baten ondorioz kutsatzeko arriskua gutxitzen du–, bai lanari dagokionez –handitu egiten da errendimendua eta, ondorioz, hobetu egiten da enpleguaren lanaren ebaluazioa, ez duenez lantokira joan behar, denbora aurrezten duelako, eta hobetu egiten da kon-

zentrazioa–, bai lana eta familia bateratzeari dagokionez –ordutegiaren malgutasuna handiagoa da–.

48. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 107. artikularen 1. zenbakia aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“107. 1. Talde fiskalaren zerga-oinarria likidazio oinarri negatiboak kenduz murrizten ahalko da, 43. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Zerga-taldean sartzen den unean edozein entitatek likidazio-oinarri negatiboak konpentsatu gabe baditu, oinarri horiekin taldearen zerga-oinarria murrizten ahalko da, eta muga izanen da entitatearen zerga-oinarri indibiduala, ken, hala bada, gorkio, 42.1 artikularen lehenengo eta bigarren zenbakietan aipatzen diren murriztapenen zenbatekoa, kontuan harturik entitate horri dagozkion ezabatzeak eta sartzak, 104.2 eta 3 artikuluan ezarritakoarekin bat».

Zioak: Zenbait muga sartu izan dira konpentsazioaren xede diren kopuruetan, dirua biltzeko, besterik gabe. Hala ere, Estatuarekin alderatuta, non ez baitago denbora-mugarik, edo Euskadirekin, non 30 urteko epea ezartzen baita, 15 urteko muga ezartzen da aipatutako likidazio-oinarri negatiboak aplikatzeko. Horrek eragin dezake enpresa askok beren likidazio-oinarri negatiboak behin betiko galtzea, aurreko ekitaldietan izandako galeren ondorioz, eta hori gaitasun ekonomikoaren printzipioaren aurka doa.

49. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluan (Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea) beste zenbaki bat gehitzeko zuzenketa.

“Zenbaki berria. 107.1. artikulua. Talde fiskalaren zerga-oinarriaren murriztapenak. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, ezabatu egiten da 107.1. artikularen bigarren paragrafoa”.

Zioak: Likidazio-oinarri positiboa aurreko urteetako zerga-oinarri negatibo bidez murrizteko aukera mugatzea. Gehiegizkoa deritzogu likidazio-

oinarri positiboa % 70eraino murrizteari, eta beharrezkoa ikusten dugu enpresen mozkinen gaineko zerga horren bidezko diru-bilketa handitzea.

50. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 132 bis artikulua gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“132. bis artikulua. Kuotako kenkariak

Kuotaren kenkariak VI. tituluan aurreikusitako arauak aplikatuz zehaztuko dira. Hala ere, salbuetsitako jardueri soilik egotz dakizkiekeen gastuek eta inbertsioek ez dute kenkarirako eskubiderik emanen, 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera finantzatzen direnean izan ezik; kasu horretan, salbuetsitako jardueri egotz dakizkiekeen gastu eta inbertsioek emanen dute kenkarirako eskubidea. Salbuetsi gabeko jardueri partzialki egotz dakizkiekeen gastuek eta inbertsioek kenkarirako eskubidea emanen dute, salbuetsi gabeko errentak dituzten jarduera ekonomikoetan eta gainera-ko jardueretan ekitaldian lortutako diru-sarrerak entitatearen guztizko diru-sarreretan egiten duten ehunekoan.

Ez dute kenkarirako eskubiderik emanen Administrazio Publikoetako entitateek egindako jarduera salbuetsiei baino egotzi ezin zaizkien gastuek eta inbertsioek».

Zioak: Oraingo edukiak ez die aukerarik ematen ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzeko ikerketaren jarduera salbuetsita duten entitateei, eta, beraz, beste entitate batzuek baino egoera txarragoan daude. Hala ere, 62. artikulua helburua da, hain zuzen ere, ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko jarduerak sustatzea hirugarren batzuek I+G+b proiektuen finantzaketan parte hartzearen bidez.

51. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“3. Entitate ekintzaileetan inbertitzen duten pertsonen edo entitateen onura fiskalak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek eta sozietateen gaineko zergari lotutako zergadunek % 40ko kenkaria egiten ahalko dute entitate ekintzaileen kapitala eratu edo handitzetik heltzen diren akzioen edo partaidetzen harpidetza egitean ordaintzen duten diru kopuruan, baldintza hauek betetzen badira:

a) Inbertsioa jasotzen duen entitateak Nafarroako foru araudia aplikatu behar du sozietateen gaineko zergan.

b) Pertsona fisikoa den zergadunaren partaidetza ezin da izan, zergaldiaren egun bakar batean ere, inbertsioaren xedeko sozietatearen kapital sozialaren edo boto-eskubideen % 40tik gorakoa. Horretarako, kontuan hartuko da, orobat, subjektu pasiboaren ezkontidearen partaidetza eta haren odol bereko edo ezkontzako zuzeneko edo alboko ahaideena, hirugarren mailara arte, horiek barne. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eragina hartzen duen egunetik aurrera.

c) Zergadunaren partaidetza, hura pertsona juridikoa denean, bere talde berean dauden gainarako sozietateen partaidetzarekin batuta (Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikulua zentzuan), kontuan hartu gabe entitateen egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egin beharra, ezin da inbertsioaren xedeko sozietatearen boto-eskubideen edo kapital sozialaren % 40tik gorakoa zergaldiko ezein egunetan. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eragina hartzen duen egunetik aurrera.

d) Zergadunak, pertsona fisikoa bada, parte har dezake bere inbertsioa hartu duen sozietatearen administrazio kontseiluan, baina ezin du inola ere hango betearazpen edo zuzendaritza eginkizunik bereganatu. Laneko edo lanbideko harremanik ere ezin du izan entitatearekin inbertsioaren aldia eta hurrengo bietan.

e) Zergadunaren ondarean mantendu behar dira akzioak edo partaidetzak, gutxienez 3 urteko epean. Epe horretan, entitateak jarraitu behar du jarduera ekonomiko bat gauzatzeko.

f) Kenkari hori aplikatzeko, zerga administrazioak aldeztu behar du aurreko baldintzak betetzen direla eta, inbertsioa zer entitatean egiten den, horrexek erregistraturik egon behar du 5. idatz-zatiak erregulatutako pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan. Erregistroan

inskribatzen den egunetik aurrera eta egun horren aurreko 6 hilabeteen egindako inbertsioek izanen dute kenkaria.

Kenkariaren gehieneko zenbatekoa 100.000 eurokoa izanen da zergaldiko. Zenbateko hori 300.000 eurokoa izatera pasako da, inbertsioa zer entitatetan egiten den, horrexek jarduera berritzaile bat egiten badu, edo bereziki sustatu gogo den sektore batean sartuta badago, edo espezializazio adimentsukoa bada. Kuota aski ez izateagatik kenkaririk gabeko zenbatekoak kenkaria izan dezake hurrengo 15 zergaldietan».

Zioak: Ekintzailatza eta talentua eta jarduera berritzaileak eta balio erantsi handikoak erakartzeko, inbertitzaileentzako estimuluak indartzen dira, Euskadiko lurraldeetan jada daudenen eta Estatuan jartzekoak direnen antzeko zenbatekoetan. Horri esker, Espainiako gainerako lurraldeen aurrean lehiakortasunik ez galtzea ahalbidetuko dugu ere.

52. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaika apartatua gehitzeko zuzenketa.

«Hamaika. Hamaseigarren xedapen gehigarria, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako efektuak izanen dituena.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Diputazioaren Erabakia, 1972ko irailaren 1ekoa.

1. Nafarroako autobidea eraiki, kontserbatu eta ustiatzeko oinarrien pleguak onesteko Nafarroako Foru Diputazioaren 1972ko irailaren 1eko Erabakian ezarritako onura fiskalak ez dira aplikatuko 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan.

2. Erabaki horretan aurreikusitakoarekin bat zerga horren salbuespena izan duten mozkinetatik heldu diren dibidenduek ez dute 35. artikuluko salbuespenerako eskubidea emanen».

Zioak: 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako, indargabetu egiten da Nafarroako autobidea eraiki, kontserbatu eta ustiatzeko oinarrien agiriak onetsi zituen Nafarroako Foru Diputazioaren 1972ko irailaren 1eko Erabakian ezarritako zerga-onuren aplikazioa.

53. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Bigarren artikulua aldatzeko zuzenketa.

Indarrik gabe uztea Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarria. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

Zioak: Zenbait muga sartu izan dira konpentsazioaren xede diren kopuruetan, dirua biltzeko, besterik gabe. Hala ere, Estatuarekin alderatuta, non ez baitago denbora-mugarik, edo Euskadirekin, non 30 urteko epea ezartzen baita, 15 urteko muga ezartzen da aipatutako likidazio-oinarri negatiboak aplikatzeko. Horrek eragin dezake enpresa askok beren likidazio-oinarri negatiboak behin betiko galtzea, aurreko ekitaldietan izandako galeren ondorioz, eta hori gaitasun ekonomikoaren printzipioaren aurka doa.

54. ZUZENKETA

PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren bigarren artikuluari hamaika apartatua gehitzeko zuzenketa.

«Bigarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Hamaika. Hamazazpigarren xedapen gehigarria, errubrika.

«Hamazazpigarren xedapen gehigarria. 2022an hasten diren zergaldietan likidazio oinarri negatiboak murrizteko mugak».

Zioak: 2022ko zergaldian, luzatu egingen dira likidazio-oinarri negatiboak konpentsatzeko mugak 20 milioi eurotik gora fakturatzen duten enpresentzat, betiere 2018an, 2019an, 2020an eta 2021ean jada baziren enpresak badira.

55. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari hogeita hirugarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. 2021ean hasten diren zergaldietan izanen ditu efektuak.

«Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Inbertsioetarako erreserba berezia gauzatzeko epea luzatzea.

Foru lege honen 45.2 artikularen lehen paragrafoan aurreikusitako inbertsioetarako erreserba berezia gauzatzeko epea urte batez luzatuko da erreserba hori 2021ean hasten diren zergaldietan lortutako etekinen kargura hornitzen duten zergadunentzat».

Zioak: Neurri honen bidez, lehengaien eta energiaren prezioak garestitzen ari diren testuinguruan eta hornidurak falta direnean, (i) ondasun produktiboetan inbertsioak egitea sustatu nahi da, Nafarroako enpresek datozen urteetan beren lehiakortasuna hobetzeko aukera izan dezaten, eta (ii) enpresen ondare-egoera indartu nahi da.

56. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari hogeita laugarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu ondorioak.

«Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Enpresen ekarpenengatik kenkaria

1. 51.1.b) artikuluan araututako zerga-tasa aplikatu behar duten sozietateen gaineko zergaren zergadunek urtean 40.000 eurotik beherako ordainsari gordinak ematen zaizkien langileen alde enpresek egotzitako ekarpenen % 20 kendu ahal izanen da kuota likidotik, betiere ekarpen horiek enpleguko pentsio planetarako, enpresako gizarte-aurreikuspen planetarako, Enpleguko pentsio funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 Zuzentarauan araututako pentsio planetarako edo gizarte-aurreikuspeneko tresna gisa diharduten gizarte-aurreikuspeneko mutualitateetarako egiten badira, eta zergaduna haien sustatzailea bada. Kenkaria izateko eskubidea emanen dute pentsio planen balioak diren estalduretarako enpresek egiten dituzten kontribuzioek ere (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Testu Bategina, pentsio plan eta funtsak arautzen dituen), baita pentsio sortuek ere, baldin eta aipatu testu bateginean xedatutako moduan gauzatu badira.

2. Langileen urteko lansari gordina 40.000 eurotik gorakoa baldin bada, 1. zenbakietan

aurreikusitako kenkaria proportzioan aplikatuko dira, hau da, enpresak 40.000 eurorentzat eginda-ko enpresa-kontribuzio eta -ekarpenei dagokien zati proportzionalen».

Zioak: Enpleguko pentsio planak sustatzeko, langileen PFEZean kengarria den enpresen ekarpenaren mugak igotzeaz gainera (aurreko zuzenketa batean proposatu da), oso komenigarritzat jotzen da halako planei lehentasuna ematea enpresa txiki eta ertainetan, enplegu plan horiek zuzkitzeko arazorik gehien dutenak baitira. Horretarako, kenkari bat ezartzen da sozietateen gaineko zergan, plan horiek zuzkitzeko erabiltzen den zenbatekoan aplikatzeko.

57. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legeari hogeita hamargarren xedapen iragankorra gehitzeko zuzenketa. Sozietateen gaineko zergaren karga-tasa orokorrari atxikita ez dauden kapital aldakorreko inbertsio-sozietate batzuen desegitea eta likidazioa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu efektuak.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen berrogeita batgarren xedapen iragankorraren 1. apartatuan ezarritakoaren arabera desegin eta likidatzen diren kapital aldakorreko inbertsio-sozietateetako bazkideek zerga-araubide hau izanen dute:

a) Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergatik salbuetsita egonen dira; kontzeptua: «sozietate-eragiketak»; zerga-oinarria: apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko xedapenen Testu Bateginaren 12.1.1 artikuluko «sozietateen desegitea».

b) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari dagokionez, likidazio prozesuan dagoen sozietateko bazkideek ez dituzten sartuko zerga-oinarrian entitatearen likidaziotik lortutako errentak, beti ere likidazio-kuota gisa dagozkien dirua edo ondasun guztiak 27/2014 Legearen 29. artikularen 4. apartatuaren a) edo b) letretan jasotako inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko inbertitzen badituzte, ondoko paragrafoetan ezarritako eran eta baldintzetan.

Kasu horretan, eskuratutako edo harpidetutako akzio edo partaidetza berriek likidatutako sozietatearen akzioen balio eta eskuratze data konterbatuko dute.

Bazkideak b) letra honen aurreko paragrafoan ezarritakoari heltzeko erabakia jakinarazi beharko diote likidazio prozesuan den sozietateari, eta honek ez dio dirurik ordainduko edo ondasunik emanen bazkideari likidazio-kuota gisa. Halaber, bazkideak akzioak eskuratu diren data eta duten balioa egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dizkio sozietateari, honek informazio hori ez badu.

Berrinbertsioan bazkidearen likidazio-kuota osatzen duten diru edo ondasun guztiak erabili beharko dira, eta ezinezkoa izanen da berrinbertsio partziala egitea. Berrinbertsioa inbertsio kolektiboko erakunde batean edo batzuetan egin ahal izanen da.

Bazkideak datu hauek emanen dizkio berrinbertsioa egiteko aukeratu duen inbertsio kolektiboko erakundeari: bere identifikazio-datuak, likidazio prozesuan dagoen sozietatearenak, entitate kudeatzailearenak eta entitate gordailuzainarenak, eta erakunde berrinbertituko duen likidazio-kuota osatzen duten dirua edo ondasunak. Horretarako, bazkideak harpidetzeko edo eskuratzeko agindua beteko du, eta erakundeari baime-na emanen dio agindu hori likidazio prozesuan dagoen sozietatearen aurrean izapidetzeko.

Likidazio prozesuan dagoen sozietateak agindua jaso ondoren, berrinbertsioa egiteko, sozietateak agindua emanen dio bere entitate gordailuzainari berrinbertsioari dagozkion dirua edo ondasunak transferitzeko likidazio prozesuan dagoen sozietatearen kontuetatik berrinbertsioa jasoko duen inbertsio kolektiboko erakundearen kontuetara. Transferentzia bazkidearen kontura eta hark aginduta egingen da. Transferentziari berrinbertsioari lotutako likidazio prozesuan dagoen sozietatearen akzioen eskurapen-balioei eta -datari buruzko informazioa erantsiko zaio.

b) letra honen lehen paragrafoan ezarritako tratamendua aplikatu ahal izateko, 27/2014 Legearen berrogeita batgarren xedapen iragankorraren 1. apartatuan desegiteko eta likidatzeko erabakia hartzeko ezarritako epea amaitu eta zazpi hilabete igaro baino lehen egin beharko da berrinbertsioa.

c) Finantza Transakzioen gaineko Zergari buruzko urriaren 15eko 5/2020 Legean aipatzen diren balioen eskuraketak finantza transakzioen gaineko zergatik salbuetsita egonen dira 1. apartatu honetan ezarritakoaren ondorioz gertatzen

badira, betiere berrinbertsioa apartatu honen b) letran xedatutakoaren arabera egiten bada.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatzeko eskubidea egiaztatzeko, apartatu honen b) letraren laugarren paragrafoan aipatzen den harpidetzeko edo eskuratzeko agindua erabiliko da; behin-behinean, agindu hori aurkeztu arte, sozietatea desegiteko eta sortutako aktiboa bazkideen artean banatzeko erabakia erabiliko dira, baita b) letra horren bigarren paragrafoan aipatutako bazkidearen jakinarazpena ere.

2. Xedapen iragankor honetan aipatutako kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen likidaziotik sortutako errenten gainean bazkideari dagokion zerga pertsonalaren konturako ordainketak ez dira egin beharko bazkideek aurreko 1. apartatuaren b) letran araututako berrinbertsiorako araubidea aplikatzea erabakitzen dutenean.

3. Xedapen iragankor honetan ezarritakoa ez da aplikatuko Inbertsio Kolektiboko Erakunde azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 33 bis artikuluan jasotako inbertsio askeko sozietateak likidazioarekin desegiten direnean, ezta uztailearen 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Inbertsio Kolektiboko Erakunde azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamenduaren 79. artikuluan jasotako kapital aldakorreko inbertsioko indize sozietate kotizatuak desegiten direnean ere».

Zioak: Uztailearen 9ko 11/2021 Legeak araubide iragankor bat ezarri du desegiteko eta likidatzeko erabakia 2022ko ekitaldian hartzen duten kapital aldakorreko higiezinetak inbertsio-sozietateetarako (SICAV), erabakia hartu eta gero, epe horren osteko sei hilabeteen barruan egiten badituzte merkataritzako araudiaren arabera beharrezkoak diren egintza edo negozio juridiko guztiak, likidazio prozesuan dagoen sozietatearen erregistro-ezereztea gauzatu arte.

Hauek dira araubide horren alderdi nagusiak:

- SICAVaren desegitearen eta likidatzearen zerga-oinarria ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergatik salbuetsita egonen da sozietate-eragiketen kontzeptuan.

- SICAVaren bazkideek likidazioaren ondorioz sortutako errenten tributazioa geroratu ahal izanen dute beren zerga pertsonalean (PFEZ, SZ,EEEZ), likidazio-kuota (dirua edo ondasunak) osorik berrinbertitzen badute Espainiako beste IKE batzuetan (batean edo batzuetan). Gerorapen horrek errenta horien gaineko konturako ordainketak egitetik salbuesten du ere. Likidazio-kuotaren berrinbertsioa zazpi hilabete igaro baino lehen

egin behar da, desegiteko eta likidatzeko erabakia hartzeko epea amaitzen denetik zenbatuta. Berrinbertsioaren xede diren IKEen akzioek edo partaidetzak likidatutako sozietatearen akzioen balioa eta eskuraketa data kontserbatuko dute.

- Eragiketa honen ondoriozko balioen eskuraketak finantza transakzioen gaineko zergatik salbuetsita egonen dira.

Likidatutako sozietatearentzat eta haren bazkideentzat ezarritako zerga-araubide iragankor honetan ez dira sartzen Nafarroako pertsona edo entitate bazkideak, ez baitute bete behar lurralde erkideko araudia, eta, ondorioz, distortsioak gertatzen dira tributazioan. Hori dela eta, xedapen iragankor honen bidez, egokitu egiten da araubide iragankorra entitate horien bazkide diren Nafarroako pertsona eta entitateentzat.

Bestela, Nafarroako zergadunak izanen lirateke kaltetu bakarrak Espainia osoan.

HIRUGARREN ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

58. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bateginaren 11.c artikularen b') letra aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“b’) Eskuraketa kausatzailea hil eta hurrengo bost urteetan mantentzea, salbu eta eskuratzaila epe horren barruan hiltzen bada edo enpresa edo erakundea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen bada”.

Zioak: Gaur egon ez da mantentzeko betebeharraren salbuespen gisa jasotzen jarauntsian jasotako negozioa edo sozietatea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzea, eta, beraz, kasu horretan, uler daiteke eskuraketa salbuesteko eskakizunak ez direla bete. Egoera hori mantentze-betebeharraren salbuespen gisa aurreikusitako behar da.

59. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bateginaren 11. artikularen c) letran azken

paragrafoa aldatzeko zuzenketa. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

«Aurreko paragrafoetan aipatutako entitateen partaidetzen eta gozamen-eskubideen eskuraketetan, salbuespena kalkulatzeko aintzat hartuko da jarduera ekonomikorako beharrezkoak diren aktiboen balioaren –jardueraren ondorio diren zorren zenbatekoa kenduta– eta entitatearen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioa, eta, hala badagokio, erregela hauek aplikatuko dira partaidetzako entitateen akzioen eta partaidetzen ebaluazioan haren entitate edukitzailearen akzio eta partaidetzen balioa zehazteko. Aktibo bat jarduera ekonomiko bat garatzeko beharrezkoa den ala ez zehazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.8.Hiru artikuluan xedatutakoa aplikatuko da».

Zioak: Muga bat ezarri da familia-enpresan partaidetzak «mortis causa» eskuratzeari lotutako salbuespenari, halako partaidetzak ondarearen gaineko zergatik salbuesteari dagokionez ezarritako mugarekin bat etorrira.

Aldaketa honen bidez, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan, salbuespena jarduera ekonomikoa egiteko behar diren aktiboen balioaren eta ondare garbiaren balioaren arteko proportzioan aplikatu nahi da. Ondorioz, familia-enpresako partaidetzak eskuratzen direnean, beharrezkoak ez diren aktiboen eta entitatearen ondare garbiaren arteko proportzioa ez da salbuetsitatzeko ODZn.

Azkenik, aktibo bat beharrezkoa den ala ez zehazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legean ezarritako definizioa hartzen da oinarritzat. 34 zenbakiko zuzenketa dela bide, hobetu egiten da haren mugaketa, ez zenbatzeko beharrezko ez diren aktibo gisa entitateak lortutako etekin banatu gabeen zenbatekoa gainditzen ez duen eskurapen-prezioa dutenak, betiere etekin horiek enpresa edo lanbide jarduerak egiteagatik lortu badira. Muga da urte horretan eta aurreko azken 10 urteetan lortutako etekinen zenbatekoa.

Neurri honen bidez, koherentzia eman nahi zaio familia-enpresaren «mortis causa» eskuraketari tributu figura ezberdinen artean, kanpoan utzita, ODZn tratamendu onuragarria izateari dagokionez, enpresa jarduerarako beharrezkoak diren aktiboekin bat ez datorren familia-enpresaren balio proportzionala, kalterik eragin gabe azken hamarkadan dibidenduak banatzeari uko egin dioten konpainien etekinen ondorioz metatutako kapi-

talari, familia-enpresen enpresa jarduerak sortutako aurrezkoa ez zigortzeko.

60. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bateginaren 12. artikularen d) letran azken paragrafoa aldatzeko zuzenketa. 2021eko urtarilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

«Entitateen partaidetzen eta gozamen-eskubideen eskuraketetan, salbuespena kalkulatzeko aintzat hartuko da jarduera ekonomikorako beharrezkoak diren aktiboen balioaren –jardueraren ondorio diren zorren zenbatekoa kenduta– eta entitatearen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioa, eta, hala badagokio, erregela hauek aplikatuko dira partaidetzako entitateen akzioen eta partaidetzen ebaluazioan haren entitate edukizaillearen akzio eta partaidetzen balioa zehazteko. Aktibo bat jarduera ekonomiko bat garatzeko beharrezkoa den ala ez zehazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.8.Hiru artikuluan xedatutakoa aplikatuko da».

Zioak: Muga bat ezarri da familia-enpresan partaidetzak «inter vivos» kosturik gabe eskuratzeari lotutako salbuespenari, halako partaidetzak ondarearen gaineko zergatik salbuesteari dagokionez ezarritako mugarekin bat etorrira.

Aldaketa honen bidez, oinordetzen eta dohaintzen gainekoz zergan, salbuespena jarduera ekonomikoa egiteko behar diren aktiboen balioaren eta ondare garbiaren balioaren arteko proportzioan aplikatu nahi da. Ondorioz, familia-enpresako partaidetzak eskuratzen direnean, beharrezkoak ez diren aktiboen eta entitatearen ondare garbiaren arteko proportzioa ez da salbuetsizat joko ODZn.

Azkenik, aktibo bat beharrezkoa den ala ez zehazteko, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legean ezarritako definizioa hartzen da oinarritzat. 34 zenbakiko zuzenketa dela bide, hobetu egiten da haren mugaketa, ez zenbatzeko beharrezko ez diren aktibo gisa entitateak lortutako etekin banatu gabeen zenbatekoa gainditzen ez duen eskurapen-preziora dutenak, betiere etekin horiek enpresa edo lanbide jarduerak egiteagatik lortu badira. Muga da urte horretan eta aurreko azken 10 urteetan lortutako etekinen zenbatekoa.

Neurri honen bidez, koherentzia eman nahi zaio familia-enpresaren «inter vivos» doako eskuraketari tributu figura ezberdinen artean, kanpoan utzita, ODZn tratamendu onuragarria izateari dagokionez, enpresa jarduerarako beharrezkoak diren aktiboekin bat ez datorren familia-enpresaren balio proportzionala, kalterik eragin gabe azken hamarkadan dibidenduak banatzeari uko egin dioten konpainien etekinen ondorioz metatutako kapitalari, familia-enpresen enpresa jarduerak sortutako aurrezkoa ez zigortzeko.

61. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bateginaren 34.1.a) artikularen 1. eta 2. zenbakiak aldatzeko eta 3. eta 4. zenbakiak indargabetzeko zuzenketa. 2022ko urtarilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

«a) 1. Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, haien berariazko legediari jarraituz, odolkitetasuneko zuzeneko aurrekoak edo ondorengorak, adopzio-hartzaileak edo adoptatuak eta bigarren mailako albo-ahaideak, haietako batek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duenean, “mortis causa” eskurapenak direnean, jaraunspen, legatu edo beste edozein oinordetza-titulu bat tarteko; halaber, 8.c) artikuluan aipatutako biziaren gaineko aseguru-kontratuen onuradunek kopuruak jasotzen dituztenean.

Karga-tasa:

- 400.000 eurorainoko likidazio-oinarria: % 0.
- Gainerako oinarria: % 0,80.

2. Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, haien berariazko legediari jarraituz, odolkitetasuneko zuzeneko aurrekoak edo ondorengorak, adopzio-hartzaileak edo adoptatuak eta bigarren mailako albo-ahaideak, haietako batek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duenean, dohaintza bitartezko eskurapenak direnean edo beste edozein “inter vivos” doako negozio juridikoa denean, bai eta 8. artikuluko d) eta e) letretan aipatzen diren biziaren gaineko aseguru-kontratuen onuradunek kopuruak jasotzen dituztenean.

Karga-tasa: 100eko 0,8».

Zioak: Zuzenketa honen bidez, oinordetzen eta dohaintzen fiskalitatea berreskuratu nahi da Nafarroan, non, tradizioz, aurreko eta ondorengo ahaideen arteko translazioek gurasoen eta seme-alaben arteko transmisiora egokitutako tributazioa

izan baitu, familiak babesteko. Gainera, gure ingurune hurbilenerako —Euskal Autonomia Erkidegoa eta erkidego mugakideak— fiskaliterara egokitzen da, gertatu diren ondareen deslokalizazio-egoerak saihestuz; izan ere, horien azken emaitza izan da Nafarroarentzat diru-bilketaren galera gertatzea.

Gainera, ohikoa da bigarren graduko albo-ahaideek desgaitasunen bat duten beren anai-arreben ardura hartzea. Hala, desgaitasunen bat duten anaia-arreben zaintza errazteko, arindu egin nahi da bigarren graduko albo-ahaideen artean dauden kostu gabeko eskualdaketei gaur egun aplikatu behar zaien zerga-karga, ahaideetako bateak % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua duenean. Zerga-kargaren gutxitze hori oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan aurreko eta ondorengo ahaideen arteko eskualdaketei aplikatzen zaien kargaren tarifari parekatuta egingo da.

Azkenik, oinordetzen kasuan, herentzia txikienezako salbuespena ezartzen da, egungoa baino handiagoa, zerga progresiboagoa eginez.

62. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Urtarrilaren 26ko 16/2004 Foru Dekretuak onetsitako Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 4. eta 5. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

«4. artikulua. Oinordetza-titulua

Testu Bateginaren 8.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, besteak beste, oinordetza-titulu dira, jaraunspenaz eta legatuaz gain, hauek: oinordetza-kontratu edo -itunak eta “mortis causa” dohaintza eta hari parekatutakoa, Testu Bateginaren 43. artikulua lehenean paragrafoan ezartzen den moduan; ondasunen eskualdatze eguneratua duten oinordetza-itunak edo kontratuak; albazea eta konfiantzako jaraunslerei beren lan hori egiteagatik diru kopuruak jasotzeko eskubidea ematen dietenak, diru kopuru horiek usadio eta ohiturek ezarritakoa gaintzen duten heinean edo oinordetzan utzitako ondasunen balio egiaztatua % 10 gaintzen dutenean».

«5. artikulua. “Inter vivos” eta doako negozio juridikoak.

Testu Bateginaren 8.b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, “inter vivos” eta doako negozio juridiko dira, besteak beste, aipatu 8. artikulua-

ren b), d) eta e) letretakoez gainera, honako hauek:

a) Testu bategin horren 43. artikulua bigarren paragrafoak aipatzen duen “mortis causa” dohaintza.

b) Zorraren barkamena, osoa edo partziala, eskuzabaltasunez egina.

c) Eskubideei uko egitea pertsona jakin baten alde.

d) Auzian edo arbitrajean atzera egitea edo beste alderdiaren eskaria onartzea, eskuzabaltasunez egina, baita halako asmoz egindako edozein transakzio, baldin eta ukoa, atzera egitea edo onarpena badakar.

e) Besteren zorra ordainik gabe eskuzabaltasunez bere gain hartzea, Testu Bateginaren 27. artikuluan ezarritako kasuan izan ezik».

Zioak: Neurri honen bidez, orainaldiko eragin-kortasuna duten oinordetza-itunak oinordetza-titulutzat hartu nahi dira oinordetza eta dohaintzen gaineko zergan, PFEZean egin nahi den bezala.

LAUGARREN ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

63. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Xedapenen Testu Bateginaren 4. artikulua 1. zenbakia aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Aurreko artikuluan zerrendatutako eragiketaz ez dira titulu honetan araututako “kostu bidezko ondare eskualdaketak” izanen, enpresaburu edo profesional batek bere enpresa edo lanbide jardueran gauzatu badu ondasun entrega edo zerbitzu egitea eta, edozein kasutan, balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar duten ondasunen emateak edo zerbitzuen prestazioak badira. Hala ere, zerga kontzeptu horrengatik ordaindu beharko dute ondasun higiezinaren emateak edo errentamenduek, baita horien gaineko erabiltze eta lupertze eskubide errealek eraketak edo eskualdaketak ere, baldin eta eragiketaz horiek balio erantsiaren zergatik salbuetsita badaude, salbu subjektu pasiboak salbuespen horri uko egingen badiot zergaren foru legean jasotako inguruar eta baldintzekin; enpresa edo lanbide ondarearen parte diren elementu gorpuzdunen edo,

kasua bada, gorpuzgabeen multzo baten eskualdaketan sartzen diren higiezinaren entregak ere ordaindu behar dute, baldin eta elementu horiek berez enpresa edo lanbide jarduera bat garatzeko gauza den unitate ekonomiko autonomo bat osatzen badute, betiere bere inguruabarrengatik ondare horren eskualdaketak balio erantsiaren gaineko zerga ordaindu behar ez badu.

Apartatu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko konkurtso-prozeduren barruan egindako unitate produktiboen eskualdaketei, baldin eta unitate produktibo horietan sartutako higiezinaren emateei dagokien kuotan kenkaria ezartzeko eskubidea duen balio erantsiaren gaineko zergaren zergaduna bada eskuratzalea, unitate horiek zerga horri lotuta eta zergatik salbuetsita daudenean».

Zioak: Sozietateen gaineko zergan, konkurtsoan unitate produktiboak eskuratzeari dagokionez proposatutako zuzenketaren (4. zk.) ildotik, aurreikusita behar da OEEJDZko kostu bidezko ondare-eskualdaketen modalitatean ez zergapeztea konkurtso-prozeduretan eskuratzeko unitate produktiboetan sartutako higiezinaren eskuraketa. Neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetako OEEJDZren foru-arauetan aurreikusita dago.

64. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren laugarren artikuluari bost bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Laugarren artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren testuategina.

“Bost bis. 35:II artikulua, 8. eta 26. apartatuak indargabetzea. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak”.

Zioak: Aurkeztutako zuzenketetako batek jasotzen du ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergatik salbuesteko azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege Dekretuan (2021eko azaroaren 3ko BOEn argitaratu zen) araututako bonu bermatuen eta hipoteka-partaidetzen eta hipotekaren transmisioaren ziurtagiriaren ingurpena, transmisioa eta amortizazioa.

Errege dekretu horrek jasotzen du, besteak beste, Bonu bermatuen igorpen eta gainbegiratze publikoari buruzko 2019/2162 Zuzentarauaren transposizioa. Zuzentarau horrek gutxieneko harmonizazioa ezartzen du igorpenen baldintzei, lehiaketan aplikatu beharreko erregelei, kontrol organismoari eta bonu bermatuen likidezia koltxoiari dagokienez.

Horregatik, errege lege dekretuak indargabetu egiten du gure herrialdean zeuden bonu bermatuei buruzkoa jasotzen zuen araudia: zedulak eta bonuak, hipotekenak, lurraldekoak eta nazioartekotzekoak. Horren ondorioz, araudi hartan zegoen salbuespena 24/2021 Errege Lege Dekretuan ezarritakoarekin lotu behar da.

Arrazoi bera dela eta, indargabetu egin behar dira (eta horregatik aurkeztu da zuzenketa hau) 35.II artikuluan Hipoteka Merkatua arautzeko 2/1981 Legean eta Ekintzaileei eta beren nazioartekotzeari laguntzeko 14/2013 Legearen 34. artikuluan jasotako salbuespenei buruzko aipamenak, hain zuzen 35.II artikuluen 8. eta 26. apartuetan agertzen direnak.

65. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren laugarren artikuluari lau bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Laugarren artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren testuategina.

«Lau bis. 35.I.B artikulua, 33. apartatua gehitzea. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“33. Lehena. 24/2021 Errege Lege-dekretuak, azaroaren 2koak, arautzen dituen hipoteka-eskualdaketen ziurtagiriaren eta hipoteka-partizipazioaren eta bonu bermatuen jaulkitze, eskualdatze, amortizate eta diru-itzultzea. Errege Lege-dekretu horren bidez Europar Batasunaren zuzentarauaren transposizioa egiten da arlo hauetan: bonu bermatuak, inbertsio kolektiboko erakunde mugazgandiko banaketa, datu irekiak eta sektore publikoko informazioaren berrerabilera, autore-eskubideen egikaritzea eta lineako transmisio batzuei nahiz irrati- eta telebista-programen emanaldi batzuei aplikatzekoak zaizkien kideko eskubide

batzuen egikaritzea, inportazio eta hornidura jakin batzuentzako aldi baterako salbuespenak, konsumitzaileak, eta errepidezko garraioako ibilgailu garbi eta energetikoki efizienteen sustapena.

Bigarrena. Entitate jaulkitzailearen konkurtsoaren kasurako aurreikusita dagoen ondare bereizia eratzeko aktibo-eskualdaketa eta maileguak beste kreditu-entitate bati eskualdatzea jaulkipenak batera finantzatzeko, 24/2021 Errege Lege-dekretuaren 14. artikuluari jarraikiz».

Zioak: Halaber jasotzen da ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergatik salbuetsiko direla 2021eko azaroaren 3ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege-dekretuak arautzen dituen bonu bermatuen, hipoteka-partizipazioen eta hipoteka-eskualdaketa ziurtagiriaren jaulkipena, eskualdaketa, amortizazioa eta itzulketa.

Errege dekretu horrek jasotzen du, besteak beste, Bonu bermatuen igorpen eta gainbegiratze publikoari buruzko 2019/2162 Zuzentarauaren transposizioa. Zuzentarau horrek gutxieneko harmonizazioa ezartzen du igorpenen baldintzei, lehiaketan aplikatu beharreko erregelei, kontrol organismoari eta bonu bermatuen likidezia koltxoiari dagokienez.

Horregatik, errege lege dekretuak indargabetu egiten du gure herrialdean zeuden bonu bermatuei buruzkoa jasotzen zuen araudia: zedulak eta bonuak, hipotekenak, lurraldekoak eta nazioartekotzekoak. Horren ondorioz, araudi har-

tan zegoen salbuespena 24/2021 Errege Lege Dekretuan ezarritakoarekin lotu behar da.

Arrazoi bera dela eta, indargabetu egin behar dira (eta horregatik aurkeztu da horri buruzko zuzenketa) 35.II artikuluan Hipoteka Merkatua arautzeko 2/1981 Legean eta Ekintzaileei eta beren nazioartekotzeari laguntzeko 14/2013 Legearen 34. artikuluan jasotako salbuespenei buruzko aipamenak, hain zuzen 35.II artikulua 8. eta 26. apartuetan agertzen direnak.

HAMARGARREN ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

66. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zuzenketa, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko foru lege proiektuaren hamargarren artikulua aldatzekoa.

Hamargarren artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea.

“2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko mar-txoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen honako agindu hauek honela idatzita geratuko dira:

Bat. 162.1 artikulua.

“1. Zegarako kuotak honakoak izanen dira:

	Kuota osoa (eurotan)
a) Turismo ibilgailuak:	
1. 8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	21.55
2. 8 zaldi fiskaletik 12ra bitarte	60.60
3. 12 zaldi fiskal baino gehiagokoak eta gehienez 16koak	129.26
4. 16 zaldi fiskal baino gehiagokoak	161.64
b) Autobusak:	
1. 21 jarleku baino gutxiago	150.80
2. 21 jarlekutik 50 bitarte	215.47
3. 50 jarleku baino gehiago	269.34
c) Kamioiak:	
1. 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarrikoak:	75.49
2. 1.000 kiloko karga erabilgarritik 2.999 kg-ra bitartekoak:	150.80
3. 2.999 kg baino gehiagoko eta gehienez 9.999 kg-ko karga erabilgarrikoak:	215.47
4. 9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarrikoak	269.34
d) Traktoreak:	
1. 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	37.02
2. 16 zaldi fiskaletik 25era	74.02
3. 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	147.85
e) Atoiak eta erdi atoiak:	
1. 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarrikoak:	37.78
2. 1.000 kiloko karga erabilgarritik 2.999 kg-ra bitartekoak:	75.49
3. 2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarrikoak	150.80
f) Bestelako ibilgailuak:	
1. Ziklomotoreak	5.43
2. 125 cc-rainoko motozikletak:	8.15
3. 125 cc baino gehiagokoak eta 250 cc-rainokoak diren motozikletak:	13.51
4. 250 cc baino gehiagokoak eta 500 cc-rainokoak diren motozikletak:	26.63
5. 500 cc baino gehiagokoak eta 1.000 cc-rainokoak diren motozikletak:	53.29
6. 1.000 cc baino gehiagoko motozikletak:	106,57"

Bi. Honako hauek izanen dira 175.2 artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak:	0,19	8 urte	
	0,35	7 urte	
	0,41	6 urte	
0,55	20 urte edo gehiago	0,33	5 urte
0,20	19 urte	0,26	4 urte
0,20	18 urte	0,18	3 urte
0,06	17 urte	0,11	2 urte
0,06	16 urte	0,13	1 urte
0,06	15 urte	0,06	Urtebetetik behera"
0,06	14 urte		
0,06	13 urte		
0,06	12 urte	Zioak: Zuzenketak 162.1 artikulua	aldaketa sartzan du Bat apartatuan, eta hamargarren artikulua oraingo edukia Bi apartatua izatera pasatuko da, baina hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergan aplikatu beharreko gehieneko koefizienteei eutsita, proiektuan onartu bezala.
0,06	11 urte		
0,06	10 urte		
0,12	9 urte		

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan tarifen % 3,2ko eguneratzea jasotzen du, 2020ko ekainetik 2021eko ekainera KPIk izandako gehikuntzarekin bat etorrita.

67. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeari artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.8.Bi B) artikulua aldatzea. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

«Subjektu pasiboak entitatean duen partaidetza % 5etik beherako izatea, indibidualki zenbatuta, edo % 20tik beherakoa ezkontideak, aurreko edo ondorengo ahaideek edo hirugarren gradurainoko albo-ahaideek dutenarekin zenbatuta, berdin delarik ahaidetasuna odolkidetasunetik, ezkontza-ahaidetasunetik edo adopzioetik etortzea».

Zioak: Familia-enpresek denboran zehar izan duten bilakaeraren ondorioz eta haien arrakasta eta jarraitutasuna haien ondarea eta jabetza ondorengo belaunaldiei transmititzearen mende dagoenez, transmisio horren ondorioa da jabetzaren hedapena familiaren adar ezberdinetan zabaltzea. Horregatik, familia-enpresaren salbuespenari eusteko, zabaldu egin behar da ahaidetasun-gradua hirugarrenaren, araua belaunaldien arteko eskualdaketaren bilakaera horretara egokitzeko.

68. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.8.Hiru artikuluari bi paragrafo gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

«Ez dira jarduera ekonomiko bat garatzeko beharrezkoak ez diren aktibo gisa zenbatuko, eskurapen-prezioa entitateek lorturiko mozkin banatu gabeen zenbatekoa baino txikiagoa dutenak, baldin eta etekin horiek jarduera enpresarial edo profesionalen ondoriozkoak badira; horretarako muga izanen da bai urte berean bai aurreko azken hamar urteetan lorturiko etekinen zenbatekoa. Paragrafo honetan xedatutakoa aplikatzeagatik beharrezkoak ez diren aktibo gisa

zenbatzen ez diren elementuek ezin izanen dute aktibo osoaren % 75 gainditu.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, jarduera ekonomikoetatik lortutako etekinekin parekatzen dira aurreko bi A) apartatuaren d') letran aipatzen diren baloreetatik lortutako dibidenduak, baita partaidetza horien eskualdaketetan lortutako gainbalioak ere, partaidetzako entitateak lortutako diru-sarreraren % 80, gutxienez, enpresa- edo lanbide-jarduerak egitetik lortu badira».

Zioak: Zenbait partaidetzen salbuespena aplikatzeko, ez dira jarduerarako beharrezkoak ez diren aktibotzat joko entitateak lortu eta banatu ez dituen etekinen zenbatekoa gainditzen ez duen eskurapen-balioa duten aktiboak, betiere etekin horiek enpresa- edo lanbide-jarduerak egiteagatik lortu badira. Muga izanen da urte horretan bertan eta aurreko 10 urteetan lortutako etekinen zenbatekoa.

Muga hori aplikatzeagatik beharrezkoak ez diren aktibo gisa zenbatzen ez diren elementuek ezin izanen dute aktibo osoaren % 75 gainditu.

Neurri horren bidez, familia-enpresak atxiki eta berreskuratu nahi dira; izan ere, hori egitea funtsezkoa da ekonomiarentzat, zeina haiek erroztzearen eta sortzen duten inbertsioaren mende baitago. Neurriak eragina izanen du, batez ere, azken hamar urteetan irabaziak izan dituzten konpainia saneatuetan. Hain zuzen ere, azken hamarkadan dibidenduak banatzeari uko egin dioten konpainien mozkinak pilatutako kapitalaren tratamendua hobetzea da helburua, halako moduz non ez den zigortuko familia-enpresen enpresa-jarduerak sortutako aurrezpena.

Neurri hau jasota dago Gipuzkoan 2022rako zenbait tribututan aldaketak onesteko foru arauaren aurreproiektuan.

69. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5. artikuluari 9. apartatua gehitzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

“9. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aipatutako entitateen partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soila eta bizitza osorako gozamen-eskubidea, entitate horiek merkatu antolatuetan kotizazioa izan zein ez».

Zioak: Ondarearen gaineko zergan pizgarriak ematea haren zati bat ekintzailertzan inbertitzeko erabiltzen duten zergadunei.

70. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua 1. apartatua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Likidazio-oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarria 800.000 euro murriztuko da, salbuetsita dagoen gutxienez harturik”.

Zioak: Salbuesteko gutxienez 800.000 euro izatea proposatzen da –orain 550.000 euro da–, gure inguruko lurralde batzuetan bezala, hala nola Araban edo Bizkaian, Nafarroan beste lurralde batzuetan baino ondare-karga handiagoa ezartzea saihesteko. Izan ere, gaur egun desabantaila fiskal handia dago, eta, ondorioz, zergen deslokalizazioarako arrisku nabarmena.

71. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 31. artikulua 1. apartatuaren lehen paragrafoa aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“Zerga honen kuota osoa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuota osoarekin batera, ez da azken horren zerga-oinarriaren baturaren % 60etik goitikoa izaten ahal, eta, ondorio hauetarako, ez da kontuan hartuko izaeragatik edo xedeagatik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kargapean dauden etekinak sortzeko ahalmenik ez duten ondare-elementuei dagokien kuota zatia”.

Zioak: Ondarearen gaineko zergako gutxienezko tributazioa Estatuaren gainerakoekin harmonizatzea.

72. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 31. artikulua

2. apartatua aldatzeko zuzenketa. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“2. Bi kuoten baturak 1. apartatuan aipatzen den muga gainditzen baldin badu, zerga horren kuota gutxituko da muga horretara iritsi arte; gutxitze hori ezin izanen da % 80 baino handiagoa izan”.

Zioak: Gaur egun, ondarearen gaineko zergaren eta PFEZaren arteko tributazio konbinatuak karga handiago eragiten du gure erkidegoan beste lurralde batzuekin alderatuta, eta, kasu batzuetan, karga neurrigabe eta konfiskatzailea da. Horrenbestez, kontua da horrelako eraginak saihestea. Estatuan, gutxienezko tributazioa % 20koa da; eta EAEko hiru lurralde historikoetan, berriz, % 25koa. Gauzak horrela, deslokalizazioarako arrisku larria dago, ezberdintasun handiak daudelako Estatu gainerako lurraldeekin. Hori dela eta, deslokalizazioak eta diru-bilketako galerak eragin daitezke ondarearen gaineko zergan, eta, ondorioz, PFEZean eta ODZn.

XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

73. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari lehenengoa bis xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa.

Lehenengoa bis xedapen gehigarria. 2022an desegin eta likidatzea erabakitzen duten kapital aldakorreko zenbait inbertsio-sozietateetako bazkideei aplikatzeko den zerga-araubidea.

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ondorioetarako, Sozietateen gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen berrogeita batgarren xedapen iragankorraren 1. apartatuan ezarritakoaren arabera likidatzen desegitea egiten duten kapital aldakorreko inbertsio-sozietateetako bazkideek ez dituzte beren zerga-oinarrian sartuko entitatearen likidazioaren ondoriozko errentak, baldin eta likidazio-kuota gisa dagozkien diruaren edo ondasunen gutzitzea berrinbertitu egiten bada, hurrengo paragrafoetan ezarritako modu eta baldintzetan, 27/2014 Legearen 29.4 artikuluko a) eta b) letretan aipaturiko inbertsio kolektiboko erakundeetako batean akzioak edo partizipazioak

eskuratu edo harpidetzeko. Kasu horretan, eskuratu edo harpideturiko akzio edo partizipazio berriek mantendu eginen dituzte likidaturiko sozietatearen akzioen eskuratze-balioa eta -data.

Bazkideak aurreko paragrafoan ezarritakoari heltzeko erabakia hartu duela jakinarazi beharko dio likidazio prozesuan den sozietateari. Kasu horretan, likidazioan dagoen entitateak ez dio inolako dirurik ordainduko edo ondasunik emanen likidazio-kuota gisa dagokionari. Halaber, bazkideak akzioen eskurapen-data eta -balioa frogatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko dio sozietateari, baldin eta sozietateak informazio hori ez badauka.

Berrinbertsioan bazkidearen likidazio-kuota osatzen duten diru edo ondasun guztiak erabili beharko dira, eta ezinezkoa izanen da berrinbertsio partziala egitea. Berrinbertsioa inbertsio kolektiboko erakunde batean edo batzuetan egin ahal izanen da.

Bazkideak datu hauek emanen dizkio berrinbertsioa egiteko aukeratu duen inbertsio kolektiboko erakundeari: bere identifikazio-datuak, likidazio prozesuan dagoen sozietatearenak, entitate kudeatzailearenak eta entitate gordailuzainarenak, eta erakundearen berrinbertsio duen likidazio-kuota osatzen duten dirua edo ondasunak. Horretarako, bazkideak harpidetzeko edo eskuratzeko agindua beteko du, eta erakundeari baime-na emanen dio agindu hori likidazio prozesuan dagoen sozietatearen aurrean izapidetzeko.

Likidazio prozesuan dagoen sozietateak agindua jaso ondoren, berrinbertsioa egin beharko da sozietateak bere gordailuzainari agindurik transferi ditzala, bazkidearen kontu eta haren izenean, berrinbertsioari dagozkion dirua edo ondasunak, likidazioan dagoen sozietatearen kontuetatik berrinbertsioa jasoko duen inbertsio kolektiboko erakundearen kontuetara. Transferentziari berrinbertsioari lotutako likidazio prozesuan dagoen sozietatearen akzioen eskurapen-balioei eta -datari buruzko informazioa erantsiko zaio.

Lehen paragrafoan ezarritako tratamendua aplikatu ahal izateko, 27/2014 Legearen berrogeita batgarren xedapen iragankorraren 1. apartatuan desegiteko eta likidatzeko erabakia hartzeko ezarritako epea amaitu eta zazpi hilabete igaro baino lehen egin beharko da berrinbertsioa.

1. Xedapen honetan aipatutako kapital aldakorreko inbertsio-sozietateen likidazioetatik eratorritako errenten gainean bazkideari dagokion zerga pertsonalaren konturako ordainketarik ez da egin beharko, bazkideak 1. apartatuan araututa dagoen

berrinbertsio-araubidea aplikatzeari atxikitzen zaizkionean.

2. Xedapen honetan ezarritakoa ez da aplikatzekoa izanen Inbertsio Kolektiboko Erakundearen azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 33. bis artikuluan aipatzen diren inbertsio askeko sozietateen likidaziodun desegitearen kasuetan, ezta aipatu 35/2003 Legea garatze aldera uztailearen 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduaren 79. artikuluan jasotako kapital aldakorreko inbertsio-sozietate indize kotizatue-
nen kasuan ere”.

Zioak: Uztailearen 9ko 11/2021 Legeak iruzur fiskala saihesteko eta haren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen ditu, Kontseiluaren 2016ko uztailearen 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten du (zuzentaru horrek barne merkatuaren funtzionamenduan eragin zuzena duten saiheste fiskaleko praktiken aurkako arauak ezartzen ditu) eta zergen arloko arau batzuk eta jokoaren arloko araudia aldatzen ditu. Bada, lege horrek eskakizun gehigarriak ezartzen ditu kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek (SICAV) aukera izan dezaten% 1eko karga tasa aplikatzeko sozietateen gaineko zergan.

Aldaketa horrekin batera, araubide iragankor bat ezarri da desegitea eta likidatzea erabakitzen duten SICAVentzat. Araubide horren xedea da sozietate horien bazkideei aukera ematea beren inbertsioak karga tasa hori mantentzeko baldintzak betetzen dituzten inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetara aldatzeko.

Gaur egun Nafarroan ez dago foru araudia bete behar duen SICAVik, eta, beraz, ez dira arautu behar Estatuko araudiak sozietate horien inguruan gehitutako araubide iragankorraren alderdiak, baina komenigarritzat jotzen da foru araudia bete behar duten bazkideei –pertsone fisikoak edo juridikoak izan– eragin diezazkieketen alderdiak sartzea. Horretarako, geroratze araubide bat ezarrita pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren tributazioan 2022an zehar desegitea eta likidazioa egitea erabakitzen duten kapital aldakorreko inbertsio-sozietateetako bazkideentzat, baldin eta beren inbertsioa sozietateen gaineko zergan % 1eko karga tasa mantentzeko baldintzak betetzen dituzten inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetara aldatzen badute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

74. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko foru lege proiektuaren xedapen indargabetzailea aldatzeko zuzenketa.

«Xedapen indargabetzailea. Arauak indargabetzea.

1. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, indargabetu egiten da Zenbait zerga aldatu eta beste zerga-neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 28ko 25/2016 Foru Legearen 7. artikulua.

2. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin indargabetzen dira:

a) 73/2014 Foru Agindua, otsailaren 19koa, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko bikote egonkorren erregistro fiskalaren edukia eta funtzionamendua arautzen dituen.

b) Bikote egonkorren erregistro fiskalari buruz Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariaren apirilaren 4ko 117/2014 Foru Aginduan egiten diren aipamenak. Foru agindu horrek onesten du 030 eredu berria, "Helbide aldaketaren edo norberaren edo familiakoen datuen aldaketaren berri ematea. Bikote egonkorren erregistro fiskala" izenekoa. Bereziki ezabatzen da "Bikote egonkorren erregistro fiskala" delakoaz izenburuan egiten den aipamena, eta indargabetzen dira 2.4, 2.5 eta 3.2 artikulua (tarteki hau: "...edo bikote egonkorren erregistro fiskaleko inskripzioa bertan behera uzteko eskatzen denean..."), 3.3, 6.1.d) eta 6.2 artikulua.

Zioak: Zuzenketa planteatzen du Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko 25/2016 Foru Legearen zazpigarren artikulua indargabetzea. Artikulu horrek 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko saneamenduko kanonaren tarifak ezarri zituen.

Artikulu horren 2. apartatuak hau ezartzen du: «Ur-banaketan aritzen diren entitateek horniduragatiko tasak arautzen dituzten ordenantzetan ezarritakoa aplikatu ahal izanen diote saneamenduko

kanonari ur-ihesak daudenean isuria kalkulatzeko den kasurako edo hobari sozialak aplikatzeko».

«Ezcutuko ur-ihesak» direla eta, arazoak izan dira apartatu horretan ezarritakoa aplikatzeko, ur-banaketan aritzen diren entitateen ordenantzetan era askotako irizpideak daudelako edo ez dagoelako ordenantzarik.

Ezcutuko ur-ihesak daudenean kanonaren tarifak aplikatzeko irizpidea foru lurralde osoan bateratzeko, beharrezkotzat jo da 2. apartatu hori aldatzea, eta saneamenduko kanonerako tarifa bereizi bat ezartzea ezcutuko ihesak daudenerako. Gainera, aldaketa horren bidez, 2021ean ebatzitako espediente batean Nafarroako Arartekoaren aurrean hartutako konpromisoa betetzen da. Legegintzako teknikak eraginda, aldaketa hauek 10/1988 Foru Legearen 13. artikuluan sartu dira, dagokion zuzenketaren bidez, eta, beraz, artikulu horretan jasoko dira 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko saneamenduko kanonaren tarifak.

Hori dela eta, nahasteak eta bikoizketak saihesteko, indargabetu egin behar da 25/2016 Foru Legearen zazpigarren artikulua, eta, zuzenketa onartzen bada, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko 10/1988 Foru Legearen 13. artikulua aldatzen duen zuzenketarekin batera onartu behar da.

AZKEN XEDAPENEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

75. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari azken xedapenetan lehenbizikoa bis gehitzeko zuzenketa.

«Azken xedapenetan lehenbizikoa bis. Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legearen aldaketa.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen 13. artikulua testu hau izanen du:

“13. artikulua.

1. Isurtze-sariaren tarifak hauek izanen dira:

a) Saneamendu-sare publikoetara konektatutako etxeko ur-erabilerak: 0,597 euro metro kubiko bakoitzeko.

b) Saneamendu-sare publikoetara konektatutako ur-erabilerak, etxekoak ez direnak: 0,715 euro metro kubiko bakoitzeko. Kasua bada, karga kutsatzailearen indize zuzentzailea aplikatuko da, erregelamenduz ezarritakoa.

c) Saneamendu-sare publikoetara konektaturik ez dauden baina erakunde eskudunek emandako baimen administratibo beharrezkoak dituzten erabiltzaileek: 0,086 euro metro kubiko bakoitzeko. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, a) edo b) letretan ezarritakoaren arabera dagokion tarifa aplikatuko da.

2. Ur-banatzaile diren entitateek zilegi izanen dute isurtze-sariari aplikatzea ur-horniduraren alorrean erabakitzen dituzten irizpideak, ur-ihesak ezkutu kasuetan isuritako emariaren kalkulurakoak. Ur-ihesak gisa kalkulaturako bolumenari aplikatu beharreko tarifa izanen da 1.c) apartatuan ezarritakoa.

3. Ur-banatzaile diren entitateek zilegi izanen dute isurtze-sariari aplikatzea horniduragatik tasak arautzen dituzten beren ordenantzek ezarritakoaren hoberi sozialak aplikatzearen kasuetarako.

4. Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei tarifa hauek aplikatuko zaizkie tratatuak izateagatik, baldin eta onartzen badira Nafarroako Ibaian Saneamendurako Plan Zuzendariari atxikitako hondakin-uren araztegiaren:

	PREZIOA
5 m ³ arte	42,50 €
10 m ³ arte	85,00 €
10 m ³ baino gehiago	8,50 €/m ³

5. Aurreko zenbatakoei balio erantsiaren gaineko zerga gehituko zaie.

6. Tarifak honako printzipio hauei jarraituz eguneratuko dira:

a) Finantza-askitasuna, foru lege honetan adierazitako beste baliabide batzuekin batera, bertan aurreikusitako helburuak lortu ahal izateko.

b) Progresibotasuna, ezarpenean.

c) Tratu berdintasuna erabiltzaileentzat, sortzen duten kutsadura-mailaren arabera».

Zioak: Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko

25/2016 Foru Legeak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharreko saneamenduko kanonaren tarifak onetsi zituen zazpigarren artikuluan.

Artikulu horren 2. apartatuak hau ezartzen du: «Ur-banaketan aritzen diren entitateek horniduragatik tasak arautzen dituzten ordenantzetan ezarritakoa aplikatu ahal izanen diote saneamenduko kanonari ur-ihesak daudenean isuria kalkulatzeko kasurako edo hoberi sozialak aplikatzeko».

«Ezkutuko ur-ihesak» direla eta, arazoak izan dira apartatu horretan ezarritakoa aplikatzeko, ur-banaketan aritzen diren entitateen ordenantzetan era askotako irizpideak daudelako edo ez dagoelako ordenantzarik.

Ezkutuko ur-ihesak daudenean kanonaren tarifak aplikatzeko irizpidea foru lurralde osoan bateratzeko, beharrezkotzat jo da 2. apartatu hori aldatzea, eta saneamenduko kanonerako tarifa bereizi bat ezartzea ezkutuko ihesak daudenerako. Gainera, aldaketa horren bidez, 2021ean ebatzitako espediente batean Nafarroako Arartekoaurrean hartutako konpromisoa betetzen da.

Legegintzako teknikak eraginda, aldaketa hauek 10/1988 Foru Legearen 13. artikuluan sartu dira, eta indargabetu eginen da Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko 25/2016 Foru Legearen zazpigarren artikulua. Indargabetze hori beste zuzenketa baten bidez eginen da, eta, hala erabakiz gero, honekin batera onartu behar da.

76. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Lege proiektuari azken xedapenetan lehenbizikoa ter gehitzeko zuzenketa.

«Azken xedapenetan lehenbizikoa ter. Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributu 100eko 0,7 arautzeko Foru Legea aldatzea.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako efektuekin, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributu 100eko 0,7a arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legearen manu hauek honela geratuko dira idatzita:

Bat. 1 artikulua

“PFEZaren aitortpena eta sozietateen gaineko zergaren aitortpena egitean ‘gizarte-intereseko beste xede batzuk’ hautatu duten zergadunen kuota osoen baturari 100eko 0,7 aplikatetik heldu den zenbatekoak berariazko atxikipena izanen duen aurrekontu-partida bat osatuko du urte bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, ‘gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa’ izenekoa”.

Bi. 4. bis 1. artikulua.

“1. Hiru hilabeteko epean, urteko errenta karpaina bukatu eta gero, gizarte entitateentzako diru-laguntzetarako deialdiak onetsiko dira. Aipatu deialdiak urtea bukatu baino lehen ebatziko dira, hurrengo urteko urtariletik aurrera bete ahal izan daitezen.

Sozietateen gaineko zergari dagokion urteroko esleipena zehazte aldera, aintzat hartuko dira aurreko hamabi hilabeteetan aurkeztutako autoliquidazioetatik suertatzen diren kuota osoak, hilabete horiek abian den urteko uztailearen 31tik aurrera zenbatuta.

Aldez aurretik, Nafarroako Gobernuak eta gizarte entitateek adostuak izanen dituzte zeintzuk izanen diren deialdi horien bidez diru-laguntzak jaso behar dituzten jarduera-ildo nagusiak; deialdi horiek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluari eta Nafarroako Ingurumen arloko Kontseiluari igorriko zaizkie, horien berri izan eta onetsitzaten”.

Hiru. 7. artikulua, bigarren paragrafoa.

“Foru lege honetako 3. artikuluan zehaztutako multzo bakoitzeko behar adina deialdi egingen dira, harik eta unean uneko aurrekontu-ekitaldian suertatzen den ‘gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funts’ guztia agortu arte”.

Zioak: Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailearen 3ko 6/2018 Legeak bere ehun eta hirugarren xedapen gehigarrian jaso zuen aukera hau markatzen zuten zergadunen sozietateen gaineko zergaren kuota osoaren % 0,7 gizarte interesekotzat jotako interes orokorreko jarduerarako erabiliko zela.

Nafarroan, aldiz, aukera hau PFEZaren kuotei dagokienez baino ez da jaso.

Gizarte intereseko proiektuak garatzeaz arduratzen diren Nafarroako gizarte entitateak funts gehiago eskatzen ari dira beren proiektuak eta jarduketak finantzatzeko, eta, zehazki, sozietateen

gaineko zergaren zergadunei haien kuota osoaren zati bat halako proiektuak eta jarduketak finantzatzeko hautua egiteko aukera emateko eskatzen dute.

Kontuan hartuta gaur egun pertsona juridikoen gizarte erantzukizunari lotutako guztiak gero eta garrantzi handiagoa duela, egokia dirudi aukera ematea haien zergak zertarako erabiltzea nahi duten zehazteko. Horregatik, zuzenketa honek aukera hori jasotzen du sozietateen gaineko zergaren zergadunentzako.

77. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legearen (premiazko neurriak onesten ditu koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko) 13. artikulua 6. apartatuari bigarren paragrafoa gehitzeko zuzenketa:

«Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 55. artikuluan eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 17. artikuluan ezarritako epeen kasuan, aurreko paragrafoan ezarritako etetea berau kontuan hartu gabe 2021eko abenduaren 31 baino lehen amaitzen diren epeei baino ez zaie aplikatuko».

Zioak: Segurtasun juridikoa dela eta, aldatu egin behar da apirilaren 6ko 7/2020 Foru Legearen (premiazko neurriak onesten ditu koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko) 13. artikulua («Epeak etetea zerga arloan») 6. apartatua, zeinak aldi baterako etetea ezartzen baitu tributuen arloko araudian ezarritako ekintzen eta eskubideen preskripzio-epeei. Neurri horren ondorioak etete hori kontuan hartu gabe 2021eko abenduaren 31 baino lehen amaitzen diren preskripzio-epeetara mugatzen ditu.

Preskripzio-epe horiek etete muga jada sartu da Estatuan, eta ondorioen muga-data gisa ezarrita da 2021eko uztailearen 1ean, Iruzur fiskala saihesteko eta haren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen uztailearen 9ko 11/2021 Legearen bidez. Lege honek, Kontseiluaren 2016ko uztailearen 12ko 2016/1164 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten du (zuzentarau horrek barne merkatuaren funtzionamenduan eragin zuzena duten saiheste fiskaleko praktiken aurkako arauak ezartzen ditu) eta zergen arloko arau batzuk eta jokoa-ren arloko araudia aldatzen ditu.

